

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ekonomia Sustatzeko Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 40/2023 FORU DEKRETUA, martxoaren 28koa. Honen bidez, Bilbao Bizkaia helmugaren turismo jasangarria garatzeko dirulaguntza programari lotutako oinarri arautzaileak eta deialdiak onesten dira, 2023 urterako.

I

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren xedea Bizkaian aberastasuna eta kalitateko enplegua sortzen laguntzea da, Bizkaiko enpresa arloan lehiakortasun iraunkorra eta nazioartekotzea sustatuz eta, aldi berean, gure lurraldearen garapen orekatua erraztuz. Ildo horretan, estrategia integral bat jarri da abian, bost ardatz estrategikotan oinarritua: ekintzailatza eta azelerazioa; berrikuntza eta lehiakortasuna; erakartzea eta interkonexioa; lurralde-oreka, eta talentua eta ezagutza; hori guztia, balio erantsiko zerbitzuak modu eraginkorrean emateko konpromisotik abiatuta.

Misio horren esparruan, onartu nahi den foru-dekretuaren xedea da:

- a) Inpaktu sozioekonomikoa sortzea modu iraunkor batean.
- b) Enpresa-sarearen lehiakortasuna hobetzea.
- c) Bisitariak erakartzea eta helmuga modu orekatu eta jasangarrian garatzea.
- d) Nazioarteko posizionamendua sendotzea eta helmugaren irudia indartzea.
- e) Pertsona guztien esperientzia eta gogobetetasuna hobetzea.
- f) Helmuga digitalki eraldatzea.
- g) Ekosistema eta adimen turistikoaren eredua indartzea.

Ekonomia Sustatzeko Sailaren 2020-2023 aldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoak dirulaguntzen lerro bat aurreikusten du Bizkaiko garapen turistiko iraunkorra bultzatzeko, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan urtero esleitzen dira horiek gauzatzeko behar diren kredituak. Horretarako, beharrezkoa da dirulaguntzoi buruzko araudia ezartzea. Dirulaguntzen lerro horren helburua da Foru-dirulaguntzen bitartez helmugan turismoaren garapena laguntzea, eta aipatutako Plan Estrategikoaren helburu estrategikoa lortzen laguntzen du, hau da, Bizkaia, lurralde erakargarri eta konektatua, eta horren barruan dago lehen aipatutako «dirulaguntza lerroa», honela: Bilbao-Bizkaia-ren turismo garapen jasangarria helburu gisa.

Dekretuak zortzi jarduera-eremutan proiektuak egitea sustatzen du, hala nola turismo-kudeaketako ekosistema indartzea, Bizkaiko turismo-baliabideak indartzea, Bizkaiko turismo-produktuak sendotzea, turismo-ekosistema jasangarri baterako proiektuak bultzatzea, sektore-lehiakortasuna hobetzea, helmuga digitalizatzea, bisitariantzako arreta hobetzea eta turismoa merkatuetan sustatzea. Horiei esker, Plan Estrategikoan adierazitako helburua bete ahal izango da, bai eta PANen jasotako eta dekretuaren 1. oinarrian jasotako helburuak lortu ere.

2030 Turismo Estrategiarekin, Bilbao Bizkaia bere ikuspegi estrategikoa zehazten du sektorearen barruan, non nazioarteko erreferente berdingabea izan nahi baitu, bere nortasun propioagatik, aniztasunagatik eta eraldatzeko duen gaitasunagatik. Hala, Bilbao Bizkaia turismoaren garapen jasangarriaren aldeko apustua egiten du, eta, horretarako, lurralde-oreka eta pertsonen ongizatea sustatu nahi ditu, elkarlaneko turismo-ekosistema baten bidez. Horrela, Bilbao Bizkaia bisitariak eta talentua erakartzeko motorra izateko asmoa du, lurralde osoan eragin sozioekonomikoa izateko.

Horretarako, 2030 Turismo Estrategiak sei printzipio nabarmentzen ditu, eta horiexek izan behar dituzte ardatz helmuga kudeatzeko tresna guztiak:

- a) Ekosistemaren barruko lankidetzak, konpromiso-maila berriak lortzeko eta gobernantza-eredua indartzeko



- b) Pertsonak xede dituen orientazioa, balio handiko esperientziak eskainiz bisitariari eta gizartearen ongizatean eta asetasunean lagunduz.
- c) Berdintasuna eta aniztasuna estrategia turistikoa anitz eta inklusiboaren funtsezko balio gisa
- d) Zeharka txertaturiko erantzukizuna eta iraunkortasuna, turismoaren inpaktuak optimizatzeko.
- e) Digitalizazio eta adimen turistikoa, aukera izateko sektorea eta helmuga digitalki eralda daitezen, adimen-eredu propioa finkatzeko.
- f) Berrikuntza eta sormena, horrela ekosistema turistikoko eragileen lehiakortasuna indartzeko.

Foru-dekretu hau Bilbao Bizkaiaren 2030erako Turismo Estrategiaren ikuspegia eta helburu estrategikoak bultzatzeko tresna bat da, lurraldeko turismo ekosistemarekin batera jardutekoa.

Zortzi jarduketa-eremu dira, eta 14 arlotan banatu dira, zortzi eremuetatik sei bitan banatu baitira, estatuko laguntzak diren edo ez kontuan hartuta. Horregatik, foru dekretu honek honako jarduketa-arlo hauek aurreikusten ditu:

- a) 1. arloa: Turismo-kudeaketako ekosistema indartzeko dirulaguntzak.
- b) 2. arloa: Bilbao Bizkaiako turismo-baliabideak sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.
- c) 3. arloa: Bilbao Bizkaiako turismo-produktuak sendotzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.
- d) 4. arloa: Turismo-ekosistema jasangarrirako proiektuak bultzatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.
- e) 5. arloa: Sektore-lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.
- f) 6. arloa: Helmuga digitalizatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.
- g) 7. arloa: Bisitarien arreta hobetzeko dirulaguntzak.
- h) 8. arloa: Merkatuetan turismoa sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.
- i) 9. arloa: Bilbao Bizkaiako turismo-baliabideak sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.
- j) 10. arloa: Bilbao Bizkaiako turismo-produktuak sendotzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.
- k) 11. arloa: Turismo-ekosistema jasangarrirako proiektuak bultzatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.
- l) 12. arloa: Sektore-lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.
- m) 13. arloa: Helmuga digitalizatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.
- n) 14. arloa: Merkatuetan turismoa sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.

2030erako Turismo Estrategiaren arabera, lehentasunezko zatik jotzen dira 1., 4., 5., 6., 11., 12. eta 13. arloak, eta hori dekretuan islatzen da, bai balorazio-irizpideetan, arlo horietan puntuazio handiagoa emanez, bai esleipenaren ondoren beste arlo batzuetako zenbatekoen soberakin posibleei arlo horien banaketan lehentasuna emanez.

II

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio xedapen honen xede den gaiaren gaineko esku-mena, hala ondorioztatzen baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautaketa, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1.d) artikulua modu koordinatuan irakurrita. Lege horretan ezartzen



denez, foru-aldundien berezko eskumena da garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko lankidetzaren ematea, arlo horretan gainerako administrazio publikoek dituzten eskumenekin bat etorritik.

Ekonomia Sustatzeko Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 17ko 207/2019 Foru Dekretuak Ekonomia Sustatzeko Foru Sailari esleitzen dio honako jardun-eremu hau: Bizkaia irudia kanpoan sustatzearekin eta turismoa sustatzearekin zerikusia duten jarduerak guztiak bultzatu eta garatzea; Bizkaia inbertsioak, talentua, bisitariak eta ekintzak erakartzeko aukera ematen duen lurralde gisa aurkeztea nazioarte mailan, eta Bizkaia lehentasunezkoak diren nazioarteko sareetan parte hartzea sustatzea.

III

Foru-dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak aurreikusten baitira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da; manuok bete egin dira xedapena egin eta izapidetzeko orduan, eta txosten hauek eman dira:

1. Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa.
2. Ekonomia Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
4. Memoria ekonomiko-administratiboa eta erregulazio onaren printzipioei buruzkoa.
5. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
6. Legezketasunari buruzko txostena.

Era berean, genero-ikuspegia jaso da foru-dekretu hau prestatzeko orduan, kontuan hartuta zer xedatzen den arau hauetan: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretua, zeinaren bidez generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen baitira (ebaluazio hori 4/2005 Legean dago aurrez ikusita). Ildo horretan, lehen adierazi den bezala, foru-dekretu honen izapidetzean generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena sartu da.

Era berean, kontuan hartu da zer ezarrita dagoen hala maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan (haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira), nola Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gidan (Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

IV

1., 2., 3., 4., 5., 6., 7. eta 8. arloetan aurreikusitako dirulaguntzak ez dira estatuko laguntzak, arlo horien erakunde onuradunek ez baitute jarduerak ekonomikorik, hau da, ez dute merkatu jakin batean ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko jarduerarik burutzen.

Ostera, 9., 10., 11., 12., 13. eta 14. arloetan aurreikusitako dirulaguntzak estatuko laguntzak dira; izan ere, erakunde onuradunek jarduerak ekonomiko bat egiten dute, alegia, merkatu jakin batean ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko jarduerak. Hala ere, dirulaguntzak Europako Batzordeari alde aurretik jakinarazteko betebeharretik salbuesita daude, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduari arabera.



V

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1. artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko foru-dekretu bidez, aurretik zerbitzu juridikoak txostena emanda; eta Dirulaguntzen Erregelamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak duela haiek onesteko ahalmena.

Halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailerako gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onetsi ditzan. Horrela, bada, kasu honetan Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari dagokio foru-dekretuaren proiektu hau proposatzea.

Hori dela bide, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2023ko martxoaren 28ko bileran aztertu ondoren, honako hau,

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra. — Oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea

Bilbao Bizkaia helmugaren turismo jasangarria garatzeko 2023ko dirulaguntzen programari lotutako oinarri arautzaileak eta deialdiak onartzen dira, eta honen ondoren doa haren testua.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Xedapen Gehigarri Bakarra. — Izaera pertsonaleko datuen babesa

1. Interesdunak ematen dituen datuak foru-dekretu honetatik eratorritzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako xedapen hauetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeri dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 95/46/ EE Zuzentaraua (datuen babesari buruzko Erregelamendu orokorra) baliogabetzen duena; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.

2. Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik.

3. Edozein bide erabiliz eskaerak egin, eta interesdunek administrazio publikoen eskuetan dauden datu pertsonalak ematen badituzte, eskaeraren hartzailea den organoak beharrezko egiaztatze-lanak egiteko aukera izango du, dituen eskumenen barruan, datuak benetakoak direla egiaztatzeko.

4. Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko («ahaztua izateko eskubidea»), aurkaratzeko, haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakien xede ez izatekoa (barne harturik profilen sorrera) ere, baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan errebokatu ahal izango du emandako baimena. Horrez gain, eskubidea du erreklamazioa jartzeko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzan. Gai honi buruzko informazio guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean dago eskuragarri, datuen babesari buruzko atalean (<https://web.bizkaia.eus/eu/datuen-babesa>).

**XEDAPEN IRAGANKORRA**

Xedapen Iragankor Bakarra.— *Aurreko urteko Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 24ko 78/2022 Foru Dekretuaren aplikatzea, zeinaren bidez onartzen baitira Bilbao Bizkaia helmuga turistikoaren turismo jasangarria garatzeko 2022ko dirulaguntzen programaren oinarri arautzaileak eta deialdia*

Xedapen iragankor honetan adierazitako araudiaren babesean aurkeztutako eskaeren ondoriozko itzultze-prozedurak, zehapen-prozedurak, errekursoak, berrikuspenak eta bestelako gorabeherak foru-dekretu horretan ezarritakoaren arabera ebatziko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Xedapen Indargabetzaile Bakarra.— *Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 24ko 78/2022 Foru Dekretuaren indargabetzea, zeinaren bidez onartzen baitira Bilbao Bizkaia helmuga turistikoaren turismo jasangarria garatzeko 2022ko dirulaguntzen programaren oinarri arautzaileak eta deialdia*

Foru-dekretu hau indarrean jartzen denean, indargabeturik geratuko da Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 24ko 78/2022 Foru Dekretua, zeinaren bidez onartzen baitira Bilbao Bizkaia helmuga turistikoaren turismo jasangarria garatzeko 2022ko dirulaguntzen programaren oinarri arautzaileak eta deialdia; hala ere, aplikatu daiteke beraren indarraldiaren barruan sortutako egoeretan, xedapen iragankor bakarrean aurreikusitakoarekin bat.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Azken Xedapenetako Lehena.— *Ahalmenak eskuordetzea*

1. Ahalmena ematen zaio Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, foru-dekretu honetan xedatzen dena garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan, baita dirulaguntzen emakida ere.
2. Halaber, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan jasotako kasua gertatzen bada foru-agindu bidez eskabideak aurkezteko epea luzatu edo ixteko.
3. Era berean, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio beste dirulaguntza-deialdi batzuk egiteko, aurrekontuko diru-hornidura amaitu ezean.

Azken Xedapenetatik Bigarrena.— *Indarrean jartzea*

1. Foru Dekretu honen bidez onetsitako oinarri arautzaileak indarrean jarriko dira «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu ondoren. Zehazki, aldizkari horretan argitaratzen denean batera onetsi den deialdiaren zatia.
2. Foru Dekretu honen bidez onetsitako deialdiek ondorioak izango dituzte deialdiaren zatia «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egunetik aurrera.

Bilbon, 2023ko martxoaren 28an.

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua,
AINARA BASURKO URKIRI



**BILBAO BIZKAIA HELMUGAREN TURISMO JASANGARRIA
GARATZEKO 2023KO DIRULAGUNTZEN PROGRAMARI LOTUTAKO
OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIAK**

AURKIBIDEA

I. titulua. — Xedapen orokorrak.

1. oinarria. — Dirulaguntzaren xedea.
2. oinarria. — Definizioak.

II. titulua. — Estatuko laguntzak ez diren dirulaguntzak.

- I. kapitulua. — *1. arloa: Turismo-kudeaketako ekosistema indartzeko dirulaguntzak.*
3. oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunak.
4. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea.
5. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.
6. oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.
- II. kapitulua. — *2. arloa: Bilbao Bizkaiako turismo-baliabideak sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.*
7. oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunak.
8. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea.
9. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.
10. oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.

- III. kapitulua. — *3. arloa: Bilbao Bizkaiako turismo-produktuak sendotzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.*
11. oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunak.
12. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea.
13. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.
14. oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.

- IV. kapitulua. — *4. arloa: Turismo-ekosistema jasangarrirako proiektuak bultzatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.*
15. oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunak.
16. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea.
17. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.
18. oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.

- V. kapitulua. — *5. arloa: Sektore-lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.*
19. oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunak.
20. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea.
21. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.
22. oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.

- VI. kapitulua. — *6. arloa: Helmuga digitalizatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.*
23. oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunak.
24. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea.
25. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.
26. oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatu.



VII. kapitulua. — 7. arloa: *Bisitarientzako arreta hobetzeko dirulaguntzak.*

- 27. oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunak.
- 28. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea.
- 29. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.
- 30. oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.

VIII. kapitulua. — 8. arloa: *Merkatuetan turismoa sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.*

- 31. oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunak.
- 32. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea.
- 33. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.
- 34. oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.

III. titulua. — Estatuko laguntzak diren dirulaguntzak.

I. kapitulua. — 9. arloa: *Bilbao Bizkaiako turismo-baliabideak sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.*

- 35. oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunak.
- 36. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea.
- 37. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.
- 38. oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.

II. kapitulua. — 10. arloa: *Bilbao Bizkaiako turismo-produktuak sendotzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.*

- 39. oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunak.
- 40. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea.
- 41. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.
- 42. oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.

III. kapitulua. — 11. arloa: *Turismo-ekosistema jasangarrirako proiektuak bultzatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.*

- 43. oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunak.
- 44. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea.
- 45. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.
- 46. oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.

IV. kapitulua. — 12. arloa: *Sektore-lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.*

- 47. oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunak.
- 48. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea.
- 49. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.
- 50. oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.

V. kapitulua. — 13. arloa: *Helmuga digitalizatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.*

- 51. oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunak.
- 52. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea.
- 53. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.
- 54. oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.



VI. kapitulua. — *14. arloa: Merkatuetan turismoa sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.*

- 55. oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunak.
- 56. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea.
- 57. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.
- 58. oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.

IV. titulua. — *Aurrekontuko kredituak eta araubide juridikoa.*

I. kapitulua. — *Aurrekontuko kredituak.*

- 59. oinarria. — Aurrekontuko zuzkidura.

II. kapitulua. — *Araubide juridikoa.*

- 60. oinarria. — Araubide juridikoa.
- 61. oinarria. — Organo eskudunak.
- 62. oinarria. — Arau-haustea eta zehapenak.
- 63. oinarria. — Ez-betetzea eta dirulaguntza itzultzea.
- 64. oinarria. — Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea.

V. titulua. — *Dirulaguntza emateko prozedura.*

- 65. oinarria. — Dirulaguntza eskabideak aurkezteko lekua, era eta epea, eta ondorengo izapideak.
- 66. oinarria. — Eskabidea egiteko behar den dokumentazioa
- 67. oinarria. — Dokumentazio orokorra
- 68. oinarria. — Berariazko dokumentazioa
- 69. oinarria. — Baloraziorako dokumentazioa
- 70. oinarria. — Eskabidea zuzentzea edo hobetzea.
- 71. oinarria. — Dirulaguntza emateko prozedura
- 72. oinarria. — Eskabideak baloratzeko irizpideak.
- 73. oinarria. — Balorazio irizpideak - 1. arloa. Turismo-kudeaketako ekosistema indartze-ko dirulaguntzak.
- 74. oinarria. — Balorazio irizpideak - 2. eta 9. arloak. Bilbao Bizkaiko turismo-baliabideak sustatzeko dirulaguntzak.
- 75. oinarria. — Balorazio irizpideak - 3. eta 10 arloak. Bilbao Bizkaiko turismo-produktuak sendotzeko dirulaguntzak.
- 76. oinarria. — Balorazio irizpideak - 4. eta 11. arloak. Turismo-ekosistema jasangarrirako proiektuak bultzatzeko dirulaguntzak
- 77. oinarria. — Balorazio irizpideak - 5. eta 12. arloak. Sektore-lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak.
- 78. oinarria. — Balorazio irizpideak - 6. arloa. Helmuga digitalizatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.
- 79. oinarria. — Balorazio irizpideak - 7. arloa. Bisitarientzako arreta hobetzeko dirulaguntzak.
- 80. oinarria. — Balorazio irizpideak - 8. eta 14. arloak. Merkatuetan turismoa sustatzeko dirulaguntzak (II. eranskina).
- 81. oinarria. — Balorazio irizpideak - 13. arloa. Helmuga digitalizatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.
- 82. oinarria. — Ebazpena
- 83. oinarria. — Errekurtsoak.
- 84. oinarria. — Dirulaguntzari uko egitea.



- 85. oinarria. — Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.
- 86. oinarria. — Emandako dirulaguntzen publizitatea.
- 87. oinarria. — Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea.
- 88. oinarria. — Jakinarazpen elektronikoa.

VI. titulua. — Gauzatzea, justifikatzea eta kontrola.

- 89. oinarria. — Gauzatzeko epea.
- 90. oinarria. — Justifikazio-epea.
- 91. oinarria. — Azpikontratazioaren baldintzak.
- 92. oinarria. — Dirulaguntzak justifikatzea.
- 93. oinarria. — Dirulaguntza ordaintzea.
- 94. oinarria. — Laguntzak metatzea.
- 95. oinarria. — Laguntzen bateragarritasuna.
- 96. oinarria. — Pertsona onuradunen beste betebeharrak batzuk.

I. eranskina. — *Bizkaiko turismo-baliabide katalogatuak.*

II. eranskina. — *2030 Turismo Estrategiaren marketin-ardatza.*

III. eranskina. — *Bilbao Bizkaiko turismo jasangarriaren adierazleak.*

I. TITULUA**XEDAPEN OROKORRAK****1. oinarria. — Dirulaguntzaren helburua**

- 1. Dirulaguntza-programa honen bidez, helburu hauek lortu nahi dira:
 - a) Inpaktu sozioekonomikoa sortze modu iraunkor batean.
 - b) Enpresa-sarearen lehiakortasuna hobetzea.
 - c) Bisitariak erakartzea eta helmuga modu orekatu eta jasangarrian garatzea.
 - d) Nazioarteko posizionamendua sendotzea eta helmugaren irudia indartzea.
 - e) Bisitari guztien esperientzia eta gogobetetasuna hobetzea.
 - f) Helmuga digitala eraldatzea.
 - g) Ekosistema eta adimen turistikoaren eredia indartzea.
- 2. Programa hau hamalau jardun-arloen bitartez gauzatuko da:
 - a) 1. arloa: Turismo-kudeaketako ekosistema indartzeko dirulaguntzak.
 - b) 2. arloa: Bilbao Bizkaiko turismo-baliabideak sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.
 - c) 3. arloa: Bilbao Bizkaiko turismo-produktuak sendotzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.
 - d) 4. arloa: Turismo-ekosistema jasangarriko proiektuak bultzatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.
 - e) 5. arloa: Sektore-lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.
 - f) 6. arloa: Helmuga digitalizatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.
 - g) 7. arloa: Bisitarietako arreta hobetzeko dirulaguntzak.
 - h) 8. arloa: Merkatuetan turismoa sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.
 - i) 9. arloa: Bilbao Bizkaiko turismo-baliabideak sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.



- j) 10. arloa: Bilbao Bizkaiaiko turismo-produktuak sendotzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.
- k) 11. arloa: Turismo-ekosistema jasangarrirako proiektuak bultzatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.
- l) 12. arloa: Sektore-lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.
- m) 13. arloa: Turismo-enpresak eta helmuga digitalizatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.
- n) 14. arloa: Merkatuetan turismoa sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.

2. oinarria.— Definizioak

Oinarri eta deialdi hauen ondorioetarako, honela ulertu behar da:

- a) Kudeaketa turistikoko erakundeak: kudeaketa turistikoko erakundeak dira Bizkaiko Foru Aldundiaren lidergopean eta hark sustatzen dituen jarduketa-planen arabera Bilbao Bizkaia helmugaren garapen turistikoko jasangarria bultzatzen duten erakundeak. Eskualde- edo udalerrri-mailakoak izan daitezke.
- b) Eskualde-mailako kudeaketa turistikoko erakundeak: jarduketa-eremutzat eskualdea edo udalaz gaindiko gunea duten erakundeak, interes eta xede turistikoei administrazio-mugak gainditzen dituztelako. Bilbao Bizkaian garapen turistikoko jasangarria bermatzeko, erakunde horiek lurraldeko udalerrri desberdinetan turismoaren kudeaketa koordinatu behar dute eta langile prestatuak izango dituzte, jarduera turistikoa garatzeko aurrekontuaz gain. Landa-turismo jasangarria sustatu nahi da, Landa-Ingurunearen Garapenaren ekainaren 30eko 7/2022 Legearen 5. artikuluan ezarritako landa-garapeneko politiken helburuekin bat etorriz —B) apartatuko VI. epigrafea, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuetan jarduera ekonomikoa sustatzea eta dibertsifikatzea— eta 6.3. Artikuluan jasotako landa-inguruneen erakunde-politiken helburu sektorialekin bat etorriz —D) apartatuko VI. epigrafea, landa-ingurunearen ehun ekonomikoa dibertsifikatzeari eta enplegua sortzeari dagokienez—.
- c) Udal-mailako kudeaketa turistikoko erakundeak: Bizkaiko udalak, baldin eta Bilbao Bizkaia helmugan garapen turistikorako kudeaketa-egiturak badituzte eta eskualde-mailako kudeaketa-erakunde bakar batean ere sartuta ez badaude. Kudeaketa turistikoko udal-erakunde horiek Bilbo Metropolitarraren ingurunean daude. Urduña, Getxo, Santurtzi, Portugalete, Barakaldo eta Sestao dira.
- d) Udal turistikoa: Bizkaiko udalak baldin eta kudeaketa turistikorako gaitasuna badute: teknikariak, aurrekontua, jarduerak eta inbertsioak, bai eta tokiko turismo-bulego bat ere, modu iraunkorrean irekia; gainera, jarduera eskualdeko kudeaketa turistikoko erakunde batekin koordinatuko dute.
- e) Turismoaren sektoreko enpresa-elkarteak: jarduera nagusia turismoa dutenak eta, gainera, sustapenerako edo inbertsiorako langile kudeatzaileak eta urteko aurrekontua dutenak. Deialdi honek xedatzen duenerako, honako hauek izan daitezke onuradun:
 - 1) Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatutakoak, betiere sozietatearen egoitza eta zerga-egoitza lurraldean badaude.
 - 2) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutakoak, baina Bizkaiko Lurralde Historikoaz kanpo, baldin eta Bizkaiko Lurralde Historikoan produkzio-zentroekin lotutako langileak dituztela ziurtatzen badute; halako kasuetan, azaldu beharko da kopurua Bizkaian eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako tokietan.
- f) Turismo-enpresak eta izaera turistikoa duten nortasun juridiko propiorik gabeko erakundeak: izaera turistikoko jarduera ekonomikoa burutzen duten erakunde pribatuak, edozein dela ere haien forma juridikoa. Deialdi honen ondorioetarako, dirulaguntzen onuradun izan daitezke egoitza soziala eta fiskala Bizkaiko



Lurralde Historikoan badute. Jarduera turistikoa dela ulertuko da honako kasu hauetan:

- 1) Erakundeak «jarduera estrategikotzat» jotzen den EJSN bat dauka Bilbao Bizkaia helmugarako, zerrenda honen arabera:
 - 1102: Ardoa egitea.
 - 4910: Hirien arteko bidaiarien garraioa trenez.
 - 4931: Hiriko eta hiri inguruko lurreko bidaiarien garraioa.
 - 4939: Beste ataletan ez dauden lurreko bidaiaren garraio-motak.
 - 5010: Itsasoko bidaiarien garraioa.
 - 5030: Bidaiarien garraioa barneko bide nabigarrietatik.
 - 5110: Aireko bidaiarien garraioa.
 - 5510: Hotelak eta antzeko ostatuak.
 - 5520: Ostatu turistikoak eta egonaldi laburreko beste ostatu batzuk.
 - 5530: Kanpingak eta karabanetarako aparkalekuak.
 - 5590: Beste ostatu batzuk.
 - 7911: Bidaia-agentzien jarduerak.
 - 7912: Operadore turistikoen jarduerak.
 - 7990: Beste erreserba zerbitzu batzuk eta horiekin zerikusia duten jarduerak.
 - 8230: Konbentzioak eta erakustazokak antolatzea.
 - 9102: Museoetako jarduerak.
 - 9103: Toki eta eraikin historikoak kudeatzea.
 - 9104: Lorategi botanikoetako, parke zoologikoetako eta erreserba naturalako jarduerak.
 - 9321: Atrakzio-parkeetako eta parke tematikoetako jarduerak.
 - 9329: Bestelako aisialdi eta entretenimendu jarduerak.

Ostatuen kasuan, Turismoaren uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 38.1 artikuluan definitutako ostatu-establezimenduak izango dira erakunde onuradunak.
- 2) Erakundeak behar bezala egiaztatutako aurreko ekitaldiko guztizkoaren %50etik gorako fakturazioa du turismo proiektu/bezeroei dagokienez.
- g) Ekonomia-jardueren sailkapen nazionala (aurrerantzean, EJSN) zenbaki-sistema bat da, eta ekoizpen-unitate guztiak garatzen duten jarduera ekonomikoaren arabera taldekatu eta sailkatzea du helburu. EJSN kode hori bakarra da, eta enpresaren jarduera ekonomiko nagusia islatzen du. Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoa ematen da alta.
- h) Baliabide turistikoak: ondasun edo gauza material edo immaterialak, elementu fisikoak, naturari loturikoak, sozialak eta kulturalak, turismoa erakarri eta haren kontsumoa bultzatzen, baita establezimenduen azpiegiturak eta turismo bideraturiko zerbitzuak ere.
- i) Bisita-eskaintza: baliabide turistiko multzo bat da; baliabide horiek, bakarrik edo beste enpresa-zerbitzu batzuekin konbinatuta, aukera ematen diete bisitariei esperientzia turistiko on bat izateko, haien premietara egokitua.
- j) Helmuga turistikoa: Bilbao Bizkaia bisitatzen dutenek aisia- edo negozio-jarduerak egiten dituzten eremua da.
- k) Honako hauek hartzen dira bisitaritzat:
 - 1) Turistak: helmuga turistikoan gaua igarotzen duten pertsonak.
 - 2) Txangozaleak: gaua bertan igarotzen ez dutenak.
- l) Turismo-fluxuak: Lurraldearen barruko bisitarien korranteak dira.



- m) Turismo-produktua: turismo-erabilerarako eta -gozamenerako egituratutako baliabide edo zerbitzu nagusi edo osagarri oro, non bisitariak jarduera bat edo gehiago egin ditzakeen.
- n) Bilbao Bizkaiko turismo-produktuak: 2030erako Turismo Estrategian jasotakoak dira, eta bi kategoriatan sailkatu daude: lehentasunezkoak eta osagarriak.
 - 1) Lehentasunezko produktuak: Bilbo metropolia, gizateriaren ondarea, gastronomia, kostalde ezohikoa, itsas kostaldea, txakolinaren mundua, parke naturalak, natura eta paisaiak, euskal nortasuna, landa-nortasuna, MICE eta arkitektura eta abangoardia.
 - 2) Produktu osagarriak: surfing, hondartzak, aktiboa eta abenturazkoa, museoak eta bildumak, golfa, dorreak, gazteluak eta gotorlekuak, arkeologia eta industria-ondarea, osasuna eta ongizatea, jaieguna, itsas bidaiak, sormenezko erosketak, ekitaldien egutegia, erlijio-ondarea, naturaren behaketa, zinema-paisaiak, musika-eszena, kirol-hitzorduak eta Athletic experience.
 - 3) 2023 ekitaldirako, formulazio estrategiko garatua duten produktuak honako hauek dira: txakolinaren mundua, kostalde bakana, marinelen kostaldea, landa-turismoa, erosketa sortzaileak, arkeologia eta ondare industrialak, natura eta paisaiak, parke naturalak eta museoak eta bildumak.
- o) Ekosistema turistiko kooperatzailea: ikuspegi bera duten eta, helburu erkideak lortzearen, kooperazio-proiektuetan modu koordinatuan lan egiten duten industria turistikoko eragileen sarea. Aktibo turistiko horiek elkarrekin jarduten dute lankidetzan, era askotan, modu zabal eta kohesionatu batean, Bilbao Bizkaiko 2030erako Turismo Estrategia indartzeko.
- p) Turismo irisgarria: irisgarritasun-premia bereziak dituzten pertsonen (hainbat dimentsiotan, hala nola mugikortasuna, ikusmena, entzumena eta kognizioa) modu independentean, berdintasunez eta duintasunez ibiltzeko aukera ematen dien turismo mota, modu unibertsalean diseinatutako produktu, zerbitzu eta turismo-inguruneen eskaintzari esker.
- q) Teknologia aurreratutzat: zerbitzu, sare, software eta gailuen multzo bat helburutzat duena ingurune baten barruan pertsonen bizi-kalitatea hobetzea, eta informazio-sistema interkonektatu eta osagarri batean integratzen dena.
- r) IOT: gailuak eta objektuak elkartzea eta elkarrekin konektatzea sare baten bidez (pribatua nahiz Interneta), non guztiak ikus daitezkeen eta elkarri eragin Bilbao Bizkaia helmugako turismo-xede edo -proiektu baterako.
- s) Informazio mugikorra: bisitariei arreta pertsonalizatua emateko aukera ematen duten azpiegitura edo zerbitzu ez-iraunkorak, turismo-fluxuek puntualki eta behar bezala justifikaturik beharrezko duten espazioetan.
- t) Turismo-informazioko euskarri digitalak: teknologia digitala ezartzea (pantailak, totem interaktiboak edo antzekoak), bisitariei informazioa eta arreta eskaintzeko.
- u) Smartphone technology: telefonoekin zerikusirik ez duten beste ezaugarri batzuk dituen ordenagailu integratu bat duen telefono zelularra, hala nola sistema eragile bat, web-nabigazioa eta software-aplikazioak exekutatzeko gaitasuna.
- v) Bizkaiko natur gune babestuak:
 - Artibai ibaiako Kontserbazio Bereziko Eremua (aurrerantzean KBE).
 - Lea ibaia KBE.
 - Urdaibaiko Biosfera Erreserba.
 - Gaztelugatxeko Biotopo babestuak (aurrerantzean BB).
 - Astondoko Haremunak KBE.
 - Barbadun Itsasadarra KBE.
 - Armañon KBE eta Parke Naturala (aurrerantzean PN).
 - Ordunte KBE.



- Meatzaldeko BB.
 - Gorobel Mendilerro Hegaztien babes bereziko eremua.
 - Gorbeia KBE eta PN.
 - Zadorrako urtegiak KBE.
 - Urkiola KBE eta PN.
- w) 2023ko ekitaldirako zehaztutako ekintza-plana duten merkatuak:
- 1) Hurbileko merkatuak: Estatu eta Frantziako Hego-mendebaldea.
 - 2) Lehentasunezko merkatuak: Frantzia, Erresuma Batua, Alemania, Italia, Herbehereak eta Estatu Batuak.
 - 3) Aukera-merkatuak: Irlanda, Suitza, Portugal, Belgika, Danimarka, Norvegia, Suedia, Finlandia eta Baltikoko Herrialdeak.
 - 4) Merkatu taktikoak: Argentina, Mexiko, Grezia, Turkia, Ekialde Ertaina, Asia, Europako ekialdea.

II. TITULUA

ESTATUKO LAGUNTZAK EZ DIREN DIRULAGUNTZAK

I. KAPITULUA

1. ARLOA: TURISMO-KUDEAKETAKO EKOSISTEMA INDARTZEKO DIRULAGUNTZAK

3. oinarria.— *Dirulaguntzaren onuradunak*

1. Eskualde- eta toki-mailako kudeaketa turistikoko erakundeek eta horien mende-ko beste erakunde publiko batzuek jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak.

2. Aurreko atalean adierazitako pertsonak eta/edo erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko:

- a) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak. Era berean, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (aurrerantzean, 38/2003 Legea) 13.3 bis artikuluen arabera, 30.000,00 eurotik gorako dirulaguntzetarako, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen (aurrerantzean 3/2004 Legea) aplikazio-eremuan dauden pertsonak baino ez badira eskatzaileak, lege horretan aurreikusitako ordainketa-epeak bete beharko dituzte.
- b) Ez egotea Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (aurrerantzean 5/2005 Foru Araua) 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretako batean ere.

Baldintza guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, emakidak eta ordainketak egiten diren unera arte mantendu eta proiektua gauzatzeko epea amaitu arte.

3. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:
 - a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan (aurrerantzean 4/2018 Foru Araua) eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen 21.bis.2 artikuluan (aurrerantzean 4/2005 Legea) adierazitako egoeretako batean dauden erakunde publikoak zein pribatuak.
 - b) Erakunde publikoak edo pribatuak, administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak Tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren (aurrerantzean 15/2022 Legea) IV. tituluaren aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.
 - c) Laguntza bat legez kontraktatzat edo barne-merkatuarekin bateraezintzat adierazi duen Europako Batzordearen aurretiko adierazpen baten ondoren laguntza hori berreskuratzeko agindu baten zain dauden pertsonak edo erakundeak.

**4. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea**

1. Honako hauek joko dira diruz laguntzeko egitatetzat: eskualde- eta toki-mailako kudeaketa turistikoko erakundeek eta horien mendeko beste erakunde publiko batzuek helmugen kudeaketa turistikorako pertsona espezializatu bat izatea.

2. Ezinbestekoa izango da erakunde onuradunak proiektu bat aurkeztu izana 4. arloan (Turismo-ekosistema jasangarrirako proiektuak bultzatzea), eta arlo horretan behar den gutxieneko puntuazioa lortu izana.

3. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango sexua edo 4/2005 Legearen 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio faktoreak direla-eta diskriminatzailea den jarduera.

4. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango 15/2022 Legearen IV. tituluan arau-hauste gisa kalifikatutako praktikak erasotzen, suspertzen edo onartzen dituen jarduera edo xede betetzea.

5. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan egin diren beharrezko gastu hauek, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira:

- a) Honako gastu hauek sartzen dira: zuzeneko kontratazioa (administrazio publiko-koen zerbitzura diharduten langileenak izan ezik, plantillan badaude), turismoko profesional baten asistentzia edo teknikari bat duen enpresa batena, turismoko unibertsitate prestakuntza edo destinoen kudeaketan gutxienez bi urteko esperientzia egiaztatua duena.
- b) Langileak zuzenean kontratatzen direnean, ordainsari gordinaren eta Gizarte Segurantzari enpresak ordaintzen dion kuotaren batura izango da kostua.
- c) Bai zuzeneko kontratazioaren kasuan, bai laguntza teknikoaren kasuan, beharrezkoa izango da pertsona teknikoak parte hartzea 2030 Turismo Estrategiaren gobernantza-ereduko tresnetan, bai eta estrategia horren garapen- eta marketing-proiektuen garapenean eta ezarpenean ere.
- d) 89. oinarrian ekintzak egiteko jasotako eperako diruz lagunduko da kontratua gehienez ere, teknikaria zuzenean kontratatzen denean nahiz laguntza teknikoa emateko kontratatzen denean.
- e) Turismo-bulegoetan edo antzekoetan jendearenganako arreta-zerbitzuetan diharduten pertsonak ezin dira inola ere dirulaguntza jaso dezaketen teknikaritzat hartu.

2. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) diruz laguntzeko moduko gastua izango da erakunde onuradunak benetan ordaindu badu eta ezin badu berreskuratu edo konpentsatu.

3. Zergak eta tasak, oinarri bereko 2 epigrafean BEZari buruz xedatutakoa izan ezik, ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko.

4. 5/2005 Foru Arauaren 29.2 artikulua xedatutakoaren arabera, egindako gastutzat joko da oinarri hauetan zehaztutakoari jarraikiz, justifikazio-aldia amaitu baino lehen egiaz ordaindutakoa.

6. oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua

1. Diruz lagundu daitezkeen egitateek dirulaguntza jaso dezaketen gastuen %70(e) ko laguntza izango dute gehienez, eta kasu batean ere ez da izango 30.000 eurotik gorakoa zuzeneko kontratazioa bada eta 20.000 eurokoa, turismoko profesional batek edo enpresa batek turismoko teknikari batekin laguntza teknikoa kontratatzen badu.

2. Halaber, arlo honetan laguntzaren zenbatekoaren muga izango da gainerako arloetan (2tik 8ra) erakundeak lortutako zenbateko guztia.



3. Arlo honetarako ezarritako gehienezko zenbatekoaz gain, dekretu honen bidez lortutako laguntzen zenbateko metatua ezin izango da izan 120.000 eurotik gorakoa erakunde onuradun bakoitzeko.

4. Erakunde onuradun bakoitzerako ezarri den gehieneko muga gainditzen bada, soberakina murriztu egingo da puntuazio txikiena lortu duen espedientean.

II. KAPITULUA

2. ARLOA: BILBAO BIZKAIKO TURISMO-BALIABIDEAK SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK, ESTATUKO LAGUNTZAK EZ DIRENAK

7. oinarria.— *Dirulaguntzaren onuradunak*

1. Erakunde hauek jo daitezke dirulaguntzen onuraduntzat, baldin eta I. eranskineko turismo-baliabidearen titular edo kudeatzaile baimenduak badira:

- a) Eskualde- eta toki-mailako kudeaketa turistikoko erakundeak eta horien mendeko beste erakunde publiko batzuk.
- b) Bizkaiko udalak eta hauen mendeko erakunde publikoak eta beste tokiko erakunde publiko batzuk.

2. Aurreko atalean adierazitako pertsonak eta/edo erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko:

- a) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak. Era berean, 38/2003 Legearen 13.3 bis artikuluen arabera, 30.000,00 eurotik gorako dirulaguntzetarako, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen 3/2004 Legearen aplikazio-eremuan dauden pertsonak baino ez badira eskatzaileak, lege horretan aurreikusitako ordainketa-epeak bete beharko dituzte.
- b) Ez egotea 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretako batean ere.
- c) Kudeaketa turistikoko erakundearen berariazko baimena egiaztatzea, 8. oinarrian diruz lagun daitekeen egitatearekin zerikusia duena. Agiri hori eskabidean aurkeztuko da.
- d) I. eranskineko turismo-baliabidearen titularraren berariazko baimena egiaztatzea, erakunde onuraduna haren titularra ez den kasuetan. Agiri hori eskabidean aurkeztuko da.

Baldintza guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, emakidak eta ordainketak egiten diren unera arte mantendu eta proiektua gauzatzeko epea amaitu arte.

3. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:

- a) 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan eta 4/2005 Legearen 21.bis.2 artikuluan adierazitako egoeretako batean dauden erakunde publikoak zein pribatuak.
- b) Erakunde publikoak edo pribatuak, administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.
- c) Laguntza bat legez kontraktatzat edo barne-merkatuarekin bateraezintzat adierazi duen Europako Batzordearen aurretiko adierazpen baten ondoren laguntza hori berreskuratzeko agindu baten zain dauden pertsonak edo erakundeak.

8. oinarria.— *Diruz lagundu daitekeen egitatea*

1. Honako hauek joko dira diruz laguntzeko egitatetzat: Bilbao Bizkaiaren garapen turistikoko jasangarritako estrategikotzat katalogatutako turismo-baliabideen azpiegiturretan eta/edo ekipamenduetan egindako inbertsioa (I. eranskina), honako ildo hauetan:

- a) Baliabideetarako irispideak nabarmentzea eta irisgarritasun unibertsala hobetzea.



- b) Harrera-zerbitzu bat abian jartzea, bai eta turismo-baliabidearen informazio- eta interpretazio-sistemak ere.
- c) Baliabidearen bisita turistikoari eragiten dioten azpiegituren hobekuntzak.
- d) Edukien eta eskaintza bisitagarriaren balioa nabarmentzea.
- e) Bisitarien esperientzia hobetuko duten oinarrizko zerbitzuak, behar bezala justifikaturik.
- f) Dinamizazio-zerbitzuak eta turismo-zerbitzuak.
- g) Baliabideak eta haien ingurune hurbilena turismoaren ikuspegitik edertzea.
- h) Zenbat jende datorren neurtzeko eta turismo-fluxu kontrolatzeko sistemak.
- i) Aurreko diruz lagun daitezkeen egitateei buruzko azterlanak, salbu eta Bilbao Bizkaia helmugan mugikortasun turistiko jasangarrira bideratutako lehia askeko dirulaguntzen programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituen foru dekretuko diruz laguntzeko moduko egitateak (4.1.b), horiek dekretu horretan xedatutakoaren arabera arautuko baitira.

2. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango sexua edo 4/2005 Legearen 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio faktoreak direla-eta diskriminatzailea den jardura.

3. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango 15/2022 Legearen IV. tituluaren arau-hauste gisa kalifikatutako praktikak erasotzen, suspertzen edo onartzen dituen jardura edo xede betetzea.

9. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan egin diren beharrezko gastuak, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira.

2. Instrukzio-organoak uste badu gastuen aurrekontua antzeko gastuen merkatuko batez besteko kostuen aldean gehiegizkoa dela, dirulaguntzaren oinarria murriztu ahal izango du gastu-kopurua egokia eta proportzionala izan arte. Murrizten bada, deialdiaren ebazpenean idatziz jasota azalduko da.

3. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) diruz laguntzeko moduko gastua izango da erakunde onuradunak benetan ordaindu badu eta ezin badu berreskuratu edo konpentsatu.

d) Aldizkako mantentze-gastuak.

5. Dena dela, diruz laguntzen den gastuak 9/2017 Legean kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, onuradunak, gutxienez, hiru hornitzaileraren eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.

6. Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan jaso beharko dira edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran, eta haien artean aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan, eta, proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzeko ez denean, aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da espresuki.

7. 5/2005 Foru Arauaren 29.2 artikulua xedatutakoaren arabera, egindako gastutzat joko da oinarri hauetan zehaztutakoari jarraikiz, justifikazio-aldia amaitu baino lehen egiaz ordaindutakoa.

38. oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua

1. Diruz lagun daitezkeen egitateek diruz lagun daitezkeen gastuaren %60ko laguntza izango dute gehienez, eta ez da inoiz 15.000 eurotik gorakoa izango erakunde onuradun bakoitzeko.

2. Arlo honetan ezarritako gehienezko zenbatekoaz gain, dekretu honen bidez lortutako laguntzen zenbateko metatua ezin izango da izan 120.000 eurotik gorakoa erakunde onuradun bakoitzeko.

3. Erakunde onuradun bakoitzerako ezarri den gehieneko muga gainditzen bada, soberakina murriztu egingo da puntuazio txikiena lortu duen espedientean.

II. KAPITULUA

10. ARLOA. BILBAO BIZKAIKO TURISMO-PRODUKTUAK SENDOTZEKO DIRULAGUNTZAK, ESTATUKO LAGUNTZAK DIRENAK

39. oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunak

1. Honako erakunde hauek izan daitezke dirulaguntzen onuradunak:

- a) Bizkaiko Lurralde Historikoko enpresa-elkarte turistiko sektorialak.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko bestelako enpresa elkarte turistiko sektorialak.
- c) Turismo-enpresak eta izaera turistikoa duten nortasun juridiko propiorik gabeko erakundeak.

2. Aurreko atalean adierazitako pertsonak eta/edo erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko:

- a) Sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.
- b) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak. Era berean, 38/2003 Legearen 13.3 bis artikularen arabera, 30.000,00 eurotik gorako dirulaguntzetarako, 3/2004 Legearen aplikazio-eremuan dauden pertsonak baino ez badira eskatzaileak, lege horretan aurreikusitako ordainketa-epeak bete beharko dituzte.
- c) Ez egotea 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretako batean ere.

Baldintza guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, emakidak eta ordainketak egiten diren unera arte mantendu eta proiektua gauzatzeko epea amaitu arte.

3. Dirulaguntzaren onuraduntzat joko da jarduerak egiten dituen erakundea, betiere Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen



maiatzaren 31eko 5/2005 Foru Arauaren 10.1 artikulua xedatutakoarekin bat etorriz, emateko arrazoia badago. Ez dira onartuko onuradun izateko eskakizunak ez betetzea-gatik, beste batzuen pantaila diren erakundeak edo hirugarrenen artean ondasunak eta zerbitzuak hornitzeko bitartekari hutsak direnak, 91. oinarrian azpikontrataziorako ezarzen denaren kalterik gabe.

4. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:
 - a) 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan eta 4/2005 Legearen 21.bis.2 artikuluan adierazitako egoeretak batean dauden erakunde publikoak zein pribatuak.
 - b) Erakunde publikoak edo pribatuak, administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.
 - c) Udal sozietate publikoak, foru-sozietate publikoak edo Eusko Jaurlaritzaren menpekoak.
 - d) Laguntza bat legez kontraktatutako edo barne-merkatuarekin bateraezintzat adierazi duen Europako Batzordearen aurretiko adierazpen baten ondoren laguntza hori berreskuratzeko agindu baten zain dauden pertsonak edo erakundeak.
5. Kanpoan geratuko dira:
 - a) Aholkulariak eta turismoko aholkularitza-enpresak.
 - b) Publizitate-enpresak.
 - c) Hizkuntza-ikastegiak; prestakuntza-zentroak; atzerrian ikasturte, kirol-egonaldi nahiz ikasketak antolatzen dituztenak, edo itzulpen- nahiz interpretazio-jarduerak.
 - d) Jolas-zentroak, joko, aisialdi eta ikuskizun zentroak
 - e) Gertakari pribatu ez-turistikoen antolatzaileak.
 - f) Gimnasioak, kirol-eskolak eta materiala alokatzeko jarduerak.
 - g) Kirol-federazioak, kirol-klubak eta kirol-elkarteak, jarduerok gauzatzen badituzte ere.

40. oinarria. — Diruz lagundu daitezkeen egitatea

1. Honako hauek izango dira diruz lagun daitezkeen egitateak:
 - a) Bilbao Bizkaia helmugaren garapen turistiko jasangarrirako estrategikotzat katalogatutako baliabide turistikoak (I. eranskina) ikuskizun bisitagarri bihurtzeko aukera ematen duten jarduketak, Bilbao Bizkaiko produktu turistikoaren arabera.
 - b) Bilbao Bizkaia «txakolinaren munduaren», «kostalde paregabearen», «itsas kostaldearen», «landa-turismoaren», «sormenezko erosketen», «arkeologia eta industria-ondarearen», «natura eta paisaien», «parke naturalen» eta «museo eta bildumen» inguruko turismo-produktuak sendotze aldera, honako jarduerak hauek hartuko dira diruz laguntzeko egitatetzat:
 - 1) Produktu horiekin lotutako turismo-esperientziak sortzea.
 - 2) Finkatu beharreko produktua beren-beregi sustatzeko ekintzak.
 - 3) Finkatu beharreko produktua beren-beregi merkaturatzeko ekintzak.
2. Ez dira diruz laguntzeko moduko egitatetzat hartuko aurreko 1.b) apartatuan zerrendatutako jarduerak, baldin eta Bilbao Bizkaia beste turismo-produktu batzuekin badute zerikusia (txakolinaren mundua, «kostalde paregabea», «itsas kostaldea», «landa-turismoa», «sormenezko erosketak», «arkeologia eta industria-ondarea», «natura eta paisaiak», «parke naturalak» eta «museoak eta bildumak»).
3. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango sexua edo 4/2005 Legearen 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio faktoreak direla-eta diskriminatzailea den jarduera.
4. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango 15/2022 Legearen IV. tituluan arau-hauste gisa kalifikatutako praktikak erasotzen, suspertzen edo onartzen dituen jarduera edo xede betetzea.

**41. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak**

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan egin diren beharrezko gastu hauek, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira:

- a) Bilbao Bizkaiko turismo-produktuei intritsekoki lotutako proiektuen diseinua eta edukiak, hau da, txakolinaren mundua, kostalde bakana, marinelen kostaldea, landa-turismoa, erosketa sortzaileak, arkeologia eta ondare industrial, natura eta paisaiak, parke naturalak eta museoak eta bildumak.
- b) Inbertsioak, eskaintza bisitagarriaren eta esperientzien sorkuntzaren kasuan.
- c) Turismo-produktua abian jartzeko proiektua, diseinua edo azterlanak, hau da, txakolinaren mundua, kostalde bakana, marinelen kostaldea, landa-turismoa eta erosketa sortzaileak, arkeologia eta ondare industrial, natura eta paisaiak, parke naturalak eta museoak eta bildumak.
- d) Proiektua abiarazteko beharrezko diren zerbitzu turistikoak.

2. Instrukzio-organoak uste badu gastuen aurrekontua antzeko gastuen merkatuko batez besteko kostuen aldean gehiegizkoa dela, dirulaguntzaren oinarria murriztu ahal izango du gastu-kopurua egokia eta proportzionala izan arte. Murrizten bada, deialdiaren ebazpenean idatziz jasota azalduko da.

3. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) diruz laguntzeko moduko gastua izango da erakunde onuradunak benetan ordaindu badu eta ezin badu berreskuratu edo konpentsatu.

4. Honako hauek ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko:

- a) Merkataritza-eragiketetan egindako gastuak, baldin eta sektoreko araudi aplikagarrian aurreikusitako ordainketa-epeak bete gabe ordaindu badira, edo, halakorik ezean, 3/2004 Legean ezarritakoak bete gabe.
- b) Pertsonal-gastuak.
- c) Zergak eta tasak, oinarri bereko 3 epigrafean BEZari buruz xedatutakoa izan ezik.
- d) Aldizkako mantentze-gastuak.

5. Dena dela, diruz laguntzen den gastuak 9/2017 Legean kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, onuradunak, gutxienez, hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.

6. Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan jaso beharko dira edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran, eta haien artean aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan, eta, proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzeko ez denean, aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da espresuki.

7. 5/2005 Foru Arauaren 29.2 artikulua xedatutakoaren arabera, egindako gastutzat joko da oinarri hauetan zehaztutakoari jarraikiz, justifikazio-aldia amaitu baino lehen egiaz ordaindutakoa.

42. oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua

1. Diruz lagundu daitezkeen egitateek dirulaguntza jaso dezaketen gastuaren %60ko laguntza izango dute gehienez, baina zenbateko hori ez honako hauek baino handiagoa izango:

- a) Turismo-elkarte sektorialen kasuan: 20.000 euro erakunde bakoitzeko.
- b) Turismo-enpresen eta izaera turistikoa duten nortasun juridiko propiorik gabeko beste erakunde batzuen kasuan: 15.000 euro erakunde bakoitzeko.



2. Euskal Autonomia Erkidegoko sektoreko enpresa-elkarteen kasuan (Bizkaiko Lurralde Historikokoak izan ezik), jaso beharreko laguntzaren zenbatekoa Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako inbertsioaren arabera izango da.

3. Arlo honetarako ezarritako gehieneko zenbatekoaz gain, dekretu honen bidez lortutako laguntzen zenbateko metatua ezin izango da izan 120.000 eurotik gorakoa erakunde onuradun bakoitzeko.

4. Erakunde onuradun bakoitzerako ezarri den gehieneko muga gainditzen bada, soberakina murriztu egingo da puntuazio txikiena lortu duen espedientean.

III. KAPITULUA

11. ARLOA. TURISMO-EKOSISTEMA JASANGARRIRAKO PROIEKTUAK BULTZATZEKO DIRULAGUNTZAK, ESTATUKO LAGUNTZAK DIRENAK

43. oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunak

1. Honako erakunde hauek izan daitezke dirulaguntzen onuradun:
 - a) Bizkaiko Lurralde Historikoko enpresa-elkarte turistiko sektorialak.
 - b) Euskal Autonomia Erkidegoko bestelako enpresa elkarte turistiko sektorialak.
 - c) Turismo-enpresak eta izaera turistikoa duten nortasun juridiko propiorik gabeko erakundeak.

2. Aurreko atalean adierazitako pertsonak eta/edo erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko:

- a) Sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.
- b) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak. Era berean, 38/2003 Legearen 13.3 bis artikulua arabera, 30.000,00 eurotik gorako dirulaguntzetarako, 3/2004 Legearen aplikazio-eremuan dauden pertsonak baino ez badira eskatzaileak, lege horretan aurreikusitako ordainketa-epeak bete beharko dituzte.
- c) Ez egotea 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretako batean ere.

Baldintza guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, emakidak eta ordainketak egiten diren unera arte mantendu eta proiektua gauzatzeko epea amaitu arte.

3. Dirulaguntzaren onuraduntzat joko da jarduerak egiten dituen erakundea, betiere Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31eko 5/2005 Foru Arauaren 10.1 artikulua xedatutakoarekin bat etorritik, emateko arrazoia badago. Ez dira onartuko onuradun izateko eskakizunak ez betetzea-gatik, beste batzuen pantaila diren erakundeak edo hirugarrenen artean ondasunak eta zerbitzuak hornitzeko bitartekari hutsak direnak, 91. oinarrian azpikontrataziorako ezarritzen denaren kalterik gabe.

4. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:
 - a) 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan eta 4/2005 Legearen 21.bis.2 artikuluan adierazitako egoeretako batean dauden erakunde publikoak zein pribatuak.
 - b) Erakunde publikoak edo pribatuak, administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.
 - c) Udal sozietate publikoak, foru-sozietate publikoak edo Eusko Jaurlaritzaren menpekoak.
 - d) Laguntza bat legez kontraktatzat edo barne-merkatuarekin bateraezintzat adierazi duen Europako Batzordearen aurretiko adierazpen baten ondoren laguntza hori berreskuratzeko agindu baten zain dauden pertsonak edo erakundeak.
5. Kanpoan geratuko dira:
 - a) Aholkulariak eta turismoko aholkularitza-enpresak.



- b) Publizitate-enpresak.
- c) Hizkuntza-ikastegiak; prestakuntza-zentroak; atzerrian ikasturte, kirol-egonaldi nahiz ikasketak antolatzen dituztenak, edo itzulpen- nahiz interpretazio-jarduerak.
- d) Jolas-zentroak, joko, aisialdi eta ikuskizun zentroak
- e) Gertakari pribatu ez-turistikoen antolatzaileak.
- f) Gimnasioak, kirol-eskolak eta materiala alokatzeko jarduerak.
- g) Kirol-federazioak, kirol-klubak eta kirol-elkarteak, jarduerok gauzatzen badituzte ere.

44. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea

1. Honako hauek joko dira diruz laguntzeko egitatetzat:
 - a) Bisitariak sortutako hondakinak minimizatzeko aukera ematen duten turismo-jarduerak.
 - b) Turismo-espazioen energia-eraginkortasuna optimizatzeko gai diren proiektuak.
 - c) Turismo-helmugaren ingurumen inpaktua murrizteko gai diren ekimenak.
 - d) Bilbao Bizkaia helmugaren jasate-ahalmen turistikoa ulertzeko eta hobetzeko ekintzak.
 - e) Sektore turistikoa lotutako ekonomia zirkularreko proiektuak.
 - f) Turismo-jardueraren bidez Bilbao Bizkaian gizarteratzea sustatzen duten jarduerak.
 - g) Bizkaiko eskualdeetako kultura-ondarea, euskal kultura eta nortasuna babestea sustatzen duten ekimenak.
 - h) Aurreko jarduketei buruzko aurretzeko azterlanak.
2. Laguntza jaso ahal izateko, ezinbestekoa izango da egingo den jarduketak eragina izatea III. eranskineko taulako jasagarritasun turistikoko 3 eremuetatik bitan gutxienez (soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa).
3. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango sexua edo 4/2005 Legearen 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio faktoreak direla-eta diskriminatzailea den jardura.
4. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango 15/2022 Legearen IV. tituluaren arau-hauste gisa kalifikatutako praktikak erasotzen, suspertzen edo onartzen dituen jardura edo xede betetzea.

45. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan egin diren beharrezko gastu hauek, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira:

Behar bezala justifikatutako inbertsioak, azterlanak eta zerbitzuak.
2. Instrukzio-organoak uste badu gastuen aurrekontua antzeko gastuen merkatuko batez besteko kostuen aldean gehiegizkoa dela, dirulaguntzaren oinarria murriztu ahal izango du gastu-kopurua egokia eta proportzionala izan arte. Murrizten bada, deialdiaren ebazpenean idatziz jasota azalduko da.
3. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) diruz laguntzeko moduko gastua izango da erakunde onuradunak benetan ordaindu badu eta ezin badu berreskuratu edo konpentsatu.
4. Honako hauek ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko:
 - a) Pertsonal propioaren gastuak.
 - b) Zergak eta tasak, oinarri bereko 3 epigrafean BEZari buruz xedatutakoa izan ezik.
 - c) Aldizkako mantentze-gastuak.



5. Dena dela, diruz laguntzen den gastuak 9/2017 Legean kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, onuradunak, gutxienez, hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.

6. Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan jaso beharko dira edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran, eta haien artean aukeratzeke, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan, eta, proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzen ez denean, aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da espresuki.

7. 5/2005 Foru Arauaren 29.2 artikulua xedatutakoaren arabera, egindako gastutzat joko da oinarri hauetan zehaztutakoari jarraikiz, justifikazio-aldia amaitu baino lehen egiaz ordaindutakoa.

46. oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua

1. Diruz lagundu daitezkeen egitateek dirulaguntza jaso dezaketen gastuen %70ko laguntza izango dute gehienez, eta kasu batean ere ez da izango:

- a) Turismo-elkarte sektorialen kasuan: 30.000 euro erakunde bakoitzeko.
- b) Turismo-enpresen eta izaera turistikoa duten nortasun juridiko propiorik gabeko beste erakunde batzuen kasuan: 15.000 euro erakunde bakoitzeko.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-elkarte sektorial turistikoen kasuan (Bizkaiko Lurralde Historikokoak izan ezik), jaso beharreko laguntzaren zenbatekoa Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako inbertsioaren arabera izango da.

3. Arlo honetarako ezarritako gehienezko zenbatekoaz gain, dekretu honen bidez lortutako laguntzen zenbateko metatua ezin izango da izan 120.000 eurotik gorakoa erakunde onuradun bakoitzeko.

4. Erakunde onuradun bakoitzerako ezarri den gehieneko muga gainditzen bada, soberakina murriztu egingo da puntuazio txikiena lortu duen espedientean.

IV. KAPITULUA

12. ARLOA. SEKTORE-LEHIAKORTASUNA HOBETZEKO DIRULAGUNTZAK, ESTATUKO LAGUNTZAK DIRENAK

47. oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunak

1. Honako erakunde hauek izan daitezke dirulaguntzen onuradunak:

- a) Bizkaiko Lurralde Historikoko enpresa-elkarte turistiko sektorialak.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko bestelako enpresa elkarte turistiko sektorialak.

2. Lehenengo atalean adierazitako pertsonak eta/edo erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko:

- a) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak. Era berean, 38/2003 Legearen 3 bis artikuluen arabera, 30.000,00 eurotik gorako dirulaguntzetarako, 3/2004 Legearen aplikazio-eremuan dauden pertsonak baino ez badira eskatzaileak, lege horretan aurreikusitako ordainketa-epeak bete beharko dituzte.
- b) Ez egotea 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretako batean ere.

Baldintza guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, emakidak eta ordainketak egiten diren unera arte mantendu eta proiektua gauzatzeko epea amaitu arte.

3. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:

- a) 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan eta 4/2005 Legearen 21.bis.2 artikuluan adierazitako egoeretako batean dauden erakunde publikoak zein pribatuak.



- b) Erakunde publikoak edo pribatuak, administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.
- c) Laguntza bat legez kontraktatzat edo barne-merkatuarekin bateraezintzat adierazi duen Europako Batzordearen aurretiko adierazpen baten ondoren laguntza hori berreskuratzeko agindu baten zain dauden pertsonak edo erakundeak.

48. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea

- 1. Honako hauek joko dira diruz laguntzeko egitatetzat:
 - a) Prestakuntza espezializatuko programak Bilbao Bizkaiko enpresa-sektorerako.
 - b) Mentoring edo coaching prozesuak Bilbao Bizkaia helmugako turismo-enpresetako taldeentzat.
- 2. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango sexua edo 4/2005 Legearen 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio faktoreak direla-eta diskriminatzailea den jarduera.
- 3. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango 15/2022 Legearen IV. tituluan arau-hauste gisa kalifikatutako praktikak erasotzen, suspertzen edo onartzen dituen jarduera edo xede betetzea.

49. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

- 1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan egin diren beharrezko gastu hauek, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira:
 - a) Prestakuntza espezializatuko programak Bilbao Bizkaiko enpresa-sektorerako.
 - b) Mentoring edo coaching prozesuak Bilbao Bizkaia helmugako turismo-enpresetako taldeentzat.
- 2. Instrukzio-organoak uste badu gastuen aurrekontua antzeko gastuen merkatuko batez besteko kostuen aldean gehiegizkoa dela, dirulaguntzaren oinarria murriztu ahal izango du gastu-kopurua egokia eta proportzionala izan arte. Murrizten bada, deialdiaren ebazpenean idatziz jasota azalduko da.
- 3. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) diruz laguntzeko moduko gastua izango da erakunde onuradunak benetan ordaindu badu eta ezin badu berreskuratu edo konpentsatu.
- 4. Honako hauek ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko:
 - a) Merkataritza-eragiketetan egindako gastuak, baldin eta sektoreko araudi aplikagarrian aurreikusitako ordainketa-epeak bete gabe ordaindu badira, edo, halakorik ezean, 3/2004 Legean ezarritakoak bete gabe.
 - b) Pertsonal propioaren-gastuak.
 - c) Zergak eta tasak, oinarri bereko 3 epigrafean BEZari buruz xedatutakoa izan ezik.
- 5. Dena dela, diruz laguntzen den gastuak 9/2017 Legean kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, onuradunak, gutxienez, hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.
- 6. Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan jaso beharko dira edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran, eta haien artean aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan, eta, proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzeko ez denean, aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da espresuki.



7. 5/2005 Foru Arauaren 29.2 artikulua xedatutakoaren arabera, egindako gastutzat joko da oinarri hauetan zehaztutakoari jarraikiz, justifikazio-aldia amaitu baino lehen egiaz ordaindutakoa.

50. oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua

1. Diruz lagun daitezkeen ekintzek diruz lagun daitezkeen gastuaren %70ko laguntza izango dute gehienez, eta ez da inola ere izango 15.000 euro baino gehiago, erakunde onuradun bakoitzeko.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko sektoreko enpresa-elkarte turistikoek kasuan (Bizkaiko Lurralde Historikokoak izan ezik), jaso beharreko laguntzaren zenbatekoa Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren partaide-kopuruaren arabera. Hori eskabidean egiaztatuta beharko da.

3. Arlo honetarako ezarritako gehienezko zenbatekoaz gain, dekretu honen bidez lortutako laguntzen zenbateko metatua ezin izango da izan 120.000 eurotik gorakoa erakunde onuradun bakoitzeko.

4. Erakunde onuradun bakoitzerako ezarri den gehieneko muga gainditzen bada, soberakina murriztu egingo da puntuazio txikiena lortu duen espedientean.

V. KAPITULUA

**13. ARLOA. HELMUGA DIGITALIZATZEKO DIRULAGUNTZAK,
ESTATUKO LAGUNTZAK DIRENAK**

51. oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunak

1. Honako erakunde hauek izan daitezke dirulaguntzen onuradunak:

- a) Bizkaiko Lurralde Historikoko enpresa-elkarte turistiko sektorialak.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko bestelako enpresa elkarte turistiko sektorialak.
- c) Turismo-enpresak eta izaera turistikoa duten nortasun juridiko propioak gabeko erakundeak.

2. Aurreko atalean adierazitako pertsonak eta/edo erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko:

- a) Sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.
- b) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak. Era berean, 38/2003 Legearen 13.3 bis artikulua arabera, 30.000,00 eurotik gorako dirulaguntzetarako, 3/2004 Legearen aplikazio-eremuan dauden pertsonak baino ez badira eskatzaileak, lege horretan aurreikusitako ordainketa-epeak bete beharko dituzte.
- c) Ez egotea 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretako batean ere.

Baldintza guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, emakidak eta ordainketak egiten diren unera arte mantendu eta proiektua gauzatzeko epea amaitu arte.

3. Dirulaguntzaren onuraduntzat joko da jarduerak egiten dituen erakundea, betiere Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31eko 5/2005 Foru Arauaren 10.1 artikulua xedatutakoarekin bat etorritik, emateko arrazoia badago. Ez dira onartuko onuradun izateko eskakizunak ez betetzea-gatik, beste batzuen pantaila diren erakundeak edo hirugarrenen artean ondasunak eta zerbitzuak hornitzeko bitartekari hutsak direnak, 91. oinarrian azpikontrataziorako ezarritzen denaren kalterik gabe.

4. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:

- a) 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan eta 4/2005 Legearen 21.bis.2 artikuluan adierazitako egoeretako batean dauden erakunde publikoak zein pribatuak.



- b) Erakunde publikoak edo pribatuak, administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.
- c) Udal sozietate publikoak, foru-sozietate publikoak edo Eusko Jaurlaritzaren menpekoak.
- d) Laguntza bat legez kontraktatzat edo barne-merkatuarekin bateraezintzat adierazi duen Europako Batzordearen aurretiko adierazpen baten ondoren laguntza hori berreskuratzeko agindu baten zain dauden pertsonak edo erakundeak.
- 5. Kanpoan geratuko dira:
 - a) Aholkulariak eta turismoko aholkularitza-enpresak.
 - b) Publizitate-enpresak.
 - c) Hizkuntza-ikastegiak; prestakuntza-zentroak; atzerrian ikasturte, kirol-egonaldi nahiz ikasketak antolatzen dituztenak, edo itzulpen- nahiz interpretazio-jarduerak.
 - d) Jolas-zentroak, joko, aisialdi eta ikuskizun zentroak
 - e) Gertakari pribatu ez-turistikoen antolatzaileak.
 - f) Gimnasioak, kirol-eskolak eta materiala alokatzeko jarduerak.
 - g) Kirol-federazioak, kirol-klubak eta kirol-elkarteak, jarduerok gauzatzen badituzte ere.

52. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea

- 1. Honako hauek joko dira diruz laguntzeko egitatetzat:
 - a) Teknologia aurreratuan oinarritutako turismo-proiektuak (2. oinarrian jaso da definizioa), erabiltzaileen esperientzia hobetuz, honako hauek barne hartzen dituztenak:
 - 1) Teknologia sentsorikoa eta monitorizazioa sartzeari esperientzia eta espazio turistikoetan
 - 2) Turismo-sektoreko prozesuak automatizatzea, erabiltzaileen esperientzia edo zerbitzu aurreratuen turismo-kudeaketa hobetzeko.
 - 3) Turismo-zerbitzuetan big data & cloud direlakoan eremuan egiten diren jarduketak, bisitariaren esperientziari edo proiektuaren operatibo turistikoaren kudeaketari onura argia dakarkietenak.
 - b) Digitalizazio aurreratua barnean hartzen dituzten esperientzia turistikoak, bereziki errealitate areagotua, adimen artifiziala edo antzekoak baliatzen dituztenak, bisita edo harekin modu intrintsekoan lotutako zerbitzuak hobetzeko.
 - c) Bilbao Bizkaiko sektore turistikoari aplikatutako smartphone technology delakoa.
 - d) IOT delakoan oinarrituriko proiektuak (Internet Of Things), turismo-jardueran esparruan (definizioa 2. oinarrian).
- 2. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango sexua edo 4/2005 Legearen 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio faktoreak direla-eta diskriminatzailea den jarduera.
- 3. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango 15/2022 Legearen IV. tituluan arau-hauste gisa kalifikatutako praktikak erasotzen, suspertzen edo onartzen dituen jarduera edo xede betetzea.

53. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

- 1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan egin diren beharrezko gastu hauek, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira:
 - a) Proiektu turistikoaren garapen teknologikoarekin eta digitalarekin modu intrintsekoan lotutako zerbitzuak.



- b) Proiektu teknologikoak eta digitalizaziozkoak abian jartzeko beharrezkoak diren inbertsioak, behar bezala justifikaturik beharrezkoak direla jarduera turistikorako eta proiektuaren xederako.
- 2. Instrukzio-organoak uste badu gastuen aurrekontua antzeko gastuen merkatuko batez besteko kostuen aldean gehiegizkoa dela, dirulaguntzaren oinarria murriztu ahal izango du gastu-kopurua egokia eta proportzionala izan arte. Murrizten bada, deialdiaren ebazpenean idatziz jasota azalduko da.
- 3. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) diruz laguntzeko moduko gastua izango da erakunde onuradunak benetan ordaindu badu eta ezin badu berreskuratu edo konpentsatu.
- 4. Honako hauek ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko:
 - a) Merkataritza-eragiketetan egindako gastuak, baldin eta sektoreko araudi aplikagarrian aurreikusitako ordainketa-epeak bete gabe ordaindu badira, edo, halakorik ezean, 3/2004 Legean ezarritakoak bete gabe.
 - b) Pertsonal propioaren-gastuak.
 - c) Zergak eta tasak, oinarri bereko 3 epigrafean BEZari buruz xedatutakoa izan ezik.
 - d) Aldizkako mantentze-gastuak.
 - e) Erakunde onuradunaren digitalizazio-gastuak, web-edukiak edo sare sozialen mantentze-lanak.
- 5. Dena dela, diruz laguntzen den gastuak 9/2017 Legean kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, onuradunak, gutxienez, hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.
- 6. Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan jaso beharko dira edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran, eta haien artean aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan, eta, proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzeko ez denean, aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da espresuki.
- 7. 5/2005 Foru Arauaren 29.2 artikulua xedatutakoaren arabera, egindako gastutzat joko da oinarri hauetan zehaztutakoari jarraikiz, justifikazio-aldia amaitu baino lehen egiaz ordaindutakoa.

54. oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua

- 1. Diruz lagundu daitezkeen ekintzek diruz lagundu daitezkeen gastuaren %70eko laguntza izango dute gehienez, eta ez da inola ere:
 - a) Turismo-elkarte sektorialen kasuan: 30.000 euro erakunde bakoitzeko.
 - b) Turismo-enpresen eta izaera turistikoa duten nortasun juridikorik gabeko beste erakunde batzuen kasuan: 15.000 euro erakunde bakoitzeko.
- 2. Euskal Autonomia Erkidegoko sektoreko enpresa-elkarte turistikoen kasuan (Bizkaiko Lurralde Historikokoak izan ezik), jaso beharreko laguntzaren zenbatekoa elkartek Bizkaiko Lurralde Historikoan duen bazkide-ehunekoaren arabera izango da.
- 3. Arlo honetarako ezarritako gehienezko zenbatekoaz gain, dekretu honen bidez lortutako laguntzen zenbateko metatua ezin izango da izan 120.000 eurotik gorakoa erakunde onuradun bakoitzeko.
- 4. Erakunde onuradun bakoitzerako ezarri den gehieneko muga gainditzen bada, soberakina murriztu egingo da puntuazio txikiena lortu duen espedientean.



VI. KAPITULUA

14. ARLOA. MERKATUETAN TURISMOA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK, ESTATUKO LAGUNTZAK DIRENAK**55. oinarria. — *Dirulaguntzaren onuradunak***

1. Honako erakunde hauek izan daitezke dirulaguntzen onuradun (2. Oinarria):
 - a) Bizkaiko Lurralde Historikoko enpresa-elkarte turistiko sektorialak.
 - b) Euskal Autonomia Erkidegoko bestelako enpresa elkarte turistiko sektorialak.
 - c) Turismo-enpresak eta izaera turistikoa duten nortasun juridiko propiorik gabeko erakundeak.
2. Lehenengo atalean adierazitako pertsonak eta/edo erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko:
 - a) Sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.
 - b) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak. Era berean, 38/2003 Legearen 13.3 bis artikuluen arabera, 30.000,00 eurotik gorako dirulaguntzetarako, 3/2004 Legearen aplikazio-eremuan dauden pertsonak baino ez badira eskatzaileak, lege horretan aurreikusitako ordainketa-epeak bete beharko dituzte.
 - c) Ez egotea 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretako batean ere.

Baldintza guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, emakidak eta ordainketak egiten diren unera arte mantendu eta proiektua gauzatzeko epea amaitu arte.

3. Dirulaguntzaren onuraduntzat joko da jarduerak egiten dituen erakundea, betiere Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31eko 5/2005 Foru Arauaren 10.1 artikulua xedatutakoarekin bat etorriz, emateko arrazoia badago. Ez dira onartuko onuradun izateko eskakizunak ez betetzeagatik, beste batzuen pantaila diren erakundeak edo hirugarrenen artean ondasunak eta zerbitzuak hornitzeko bitartekari hutsak direnak, 91. oinarrian azpikontrataziorako ezarzen denaren kalterik gabe.

4. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:
 - a) 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan eta 4/2005 Legearen 21.bis.2 artikuluan adierazitako egoeretako batean dauden erakunde publikoak zein pribatuak.
 - b) Erakunde, publikoak edo pribatuak, administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.
 - c) Udal sozietate publikoak, foru-sozietate publikoak edo Eusko Jaurlaritzaren menpekoak.
 - d) Laguntza bat legez kontraktatzat edo barne-merkatuarekin bateraezintzat adierazi duen Europako Batzordearen aurretiko adierazpen baten ondoren laguntza hori berreskuratzeko agindu baten zain dauden pertsonak edo erakundeak.
5. Kanpoan geratuko dira:
 - a) Aholkulariak eta turismoko aholkularitza-enpresak.
 - b) Publizitate-enpresak.
 - c) Hizkuntza-ikastegiak; prestakuntza-zentroak; atzerrian ikasturte, kirol-egonaldi nahiz ikasketak antolatzen dituztenak, edo itzulpen- nahiz interpretazio-jarduerak.
 - d) Jolas-zentroak, joko, aisialdi eta ikuskizun zentroak
 - e) Gertakari pribatu ez-turistikoen antolatzaileak.
 - f) Gimnasioak, kirol-eskolak eta materiala alokatzeko jarduerak.
 - g) Kirol-federazioak, kirol-klubak eta kirol-elkarteak, jarduerok gauzatzen badituzte ere.

**56. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea**

1. Diruz lagundu daitezkeen ekintzat hartuko dira II eranskinaren taulan adierazitako ekintzak:
 - a) Bilbao Bizkaiko operadoreen/turismo-erakundeen eta turismo-enpresa igorleen negozioa sustatzen duten sustapen- eta merkaturatze-ekintzak (B2B ekintzak), 2030erako turismo-estrategiaren marketin-ardatzetik eratorritako merkatuetako turismo-sustapeneko taularen arabera (II. eranskina).
 - b) Turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko ekintzak, azken kontsumitzaileari modu digitalean edo presentzialean zuzenduak (B2C ekintzak), 2030erako turismo-estrategiaren marketin-ardatzetik eratorritako merkatuetako turismo-sustapeneko taularen arabera (II. eranskina).
 - c) Helmuga sustatzeko ekintzak, komunikabideekin eta preskriptoreekin/influencer-ekin lankidetzan (PR ekintzak), 2030erako turismo-estrategiaren marketin-ardatzetik eratorritako merkatuetako turismo-sustapeneko taularen arabera (II. eranskina).
2. Eredu horretan egindako sustapen ekintza orotan, Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoaz gain, Bilbao Bizkaia Be Basque marka jarri beharko da aterki-marka nagusi gisa edo babesle nagusi gisa, sektoreari eta azken publikoari zuzendutako euskarri eta elementu guztietan.
3. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango sexua edo 4/2005 Legearen 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio faktoreak direla-eta diskriminatzailea den jarduerak.
4. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango 15/2022 Legearen IV. tituluan arau-hauste gisa kalifikatutako praktikak erasotzen, suspertzen edo onartzen dituen jarduerak edo xede betetzea.

57. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan egin diren beharrezko gastu hauek, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira:
 - a) Eskatzailearen sustapen-planeari sartutako turismo-sustapeneko topaketa, hitzordu edo espazioetara joatea eta halakoetan parte hartzea.
 - b) Merkatuan jarduteko beharrezkoak diren azpiegitura ez-iraunkorrek edo aurrez aurreko sustapenerako zerbitzuak, hala nola standak, sustapen-espazioak eta antzekoak eraikitzea.
 - c) Aurkeztutako sustapen-jarduerarako beharrezkoak diren ekitaldi profesionalak antolatzeak edo kudeatzeko zerbitzuak.
 - d) Merkatuan sustapenean jarduteko modu intrinsekoan eta behar bezala justifikaturik behar diren euskarriak eta materialak diseinatu eta inprimatzea.
 - e) Catering edo dastatze gastronomikoko zerbitzuak, bai eta beste era bateko zerbitzuak ere, turismoaren ikuspegitik agerian jartzen dutenak sustapen-jarduketako publikoarentzat Bilbao Bizkaia helmugaren euskal identitatea eta gastronomia.
 - f) Diruz laguntzeko eskatzen den merkatuko sustapen-jarduerak berezko eta beharrezko dituen plataforma edo garapen teknologiko edo digitalak.
 - g) Publizitate-kanpainak bitarteko digitaletan edo hautatutako targeterako interesgarriak diren espazioetan, behar bezala justifikaturik brief batekin eta baliabideen plan xehatu batekin.
 - h) Publizitate-kanpainetarako edo merkatuko gainerako sustapen-jardueretarako beharrezko diren sormen-garapenak.
 - i) Komunikabideei, tour operadoreei, operadore turistikoiei edo influencer-ei zuzendutako bidaia, egonaldi eta zerbitzu turistikoen gastuak, aurkeztutako susta-



pen-jardunari modu intrintsekoan lotuak, zehatz azalduta nor bertaratuko den eta zer eragin izan dezaketen jatorrizko merkatuan.

- j) Merkatuan jarduteko beharrezkoak diren turismo-sustapeneko beste gastu batzuk, behar bezala justifikaturik eta jarduketaren irismena eta eragina ezagutze-ko behar den xehetasunarekin.

2. Instrukzio-organoak uste badu gastuen aurrekontua antzeko gastuen merkatuko batez besteko kostuen aldean gehiegizkoa dela, dirulaguntzaren oinarria murriztu ahal izango du gastu-kopurua egokia eta proportzionala izan arte. Murrizten bada, deialdiaren ebazpenean idatziz jasota azalduko da.

3. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) diruz laguntzeko moduko gastua izango da erakunde onuradunak benetan ordaindu badu eta ezin badu berreskuratu edo konpentsatu.

- 4. Honako hauek ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko:

- a) Merkataritza-eragiketetan egindako gastuak, baldin eta sektoreko araudi aplikagarrian aurreikusitako ordainketa-epeak bete gabe ordaindu badira, edo, halakorik ezean, 3/2004 Legean ezarritakoak bete gabe.
- b) Pertsonal propioaren gastuak.
- c) Itzulpenak.
- d) Zergak eta tasak, oinarri bereko 3 epigrafean BEZari buruz xedatutakoa izan ezik.

5. Dena dela, diruz laguntzen den gastuak 9/2017 Legean kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gaintitzen dituenean, onuradunak, gutxienez, hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.

6. Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan jaso beharko dira edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran, eta haien artean aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan, eta, proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzeko ez denean, aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da espresuki.

7. 5/2005 Foru Arauaren 29.2 artikulua xedatutakoaren arabera, egindako gastutzat joko da oinarri hauetan zehaztutakoari jarraikiz, justifikazio-aldia amaitu baino lehen egiaz ordaindutakoa.

58. oinarria. — Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua

1. Diruz lagun daitezkeen egitateek diruz lagun daitezkeen gastuaren %60ko laguntza izango dute gehienez, eta ez da inola ere:

- a) Turismo-elkarte sektorialen kasuan: 30.000 euro erakunde bakoitzeko.
- b) Turismo-enpresen eta izaera turistikoa duten nortasun juridiko propioak gabeko beste erakunde batzuen kasuan: 15.000 euro erakunde bakoitzeko.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko sektoreko enpresa-elkarte turistikoaren kasuan (Bizkaiko Lurralde Historikokoak izan ezik), jaso beharreko laguntzaren zenbatekoa elkar- teak Bizkaiko Lurralde Historikoan dituen bazkide-ehunekoaren arabera izango da, salbu eta jarduketa Bizkaiko Lurralde Historikoko produktuak sustatzea bakarrik bada; kasu horretan, egin diren gastuen %100 hartuko da diruz laguntzeko moduko gastutzat.

3. Arlo honetarako ezarritako gehienezko zenbatekoaz gain, dekretu honen bidez lortutako laguntzen zenbateko metatua ezin izango da izan 120.000 eurotik gorakoa erakunde onuradun bakoitzeko.

4. Erakunde onuradun bakoitzerako ezarri den gehieneko muga gaintitzen bada, soberakina murriztu egingo da puntuazio txikiena lortu duen espedientean.

**IV. TITULUA**
AURREKONTUKO KREDITUAK ETA ARAUBIDE JURIDIKOA**I. KAPITULUA**
AURREKONTUKO KREDITUAK**59. oinarria. — Aurrekontuko zuzkidura**

1. Deialdi honetan eman daitezkeen laguntzak eta onurak, guztira 1.400.000 euro, jarraian zerrendatuko diren aurrekontu-partiden kontura ordainduko dira; ondoren adierazten diren estimatutako kopuruetan banakatuko dira, eta haien muga partida bakoitzean ezarritako guztizko kopurua izango da:

Urtekoa	Aurrekontuko partida	Zenbatekoa (€)
2023	0808/G/432109/ 43299/2009/0012	250.000
2023	0808/G/432109/ 44300/2009/0012	100.000
2023	0808/G/432109/ 45100/2009/0012	590.000
2023	0808/G/432109/ 44900/2009/0012	40.000
2023	0808/G/432109/ 73299/2009/0012	200.000
2023	0808/G/432109/ 74300/2009/0012	20.000
2023	0808/G/432109/ 75100/2009/0012	150.000
2023	0808/G/432109/ 74900/2009/0012	50.000

2. Honako zenbateko hauek ezartzen dira arlo bakoitzeko:

a) 1. Arloa: Turismo-kudeaketako ekosistema indartzeko dirulaguntzak: 200.000 euro.

Proiektu zk.: 2009/0012		
Partida	Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
0808/G/432109/43299	2023	30.000
0808/G/432109/45100	2023	170.000

b) 2. Arloa: Bilbao Bizkaiako turismo-baliabideak sustatzeko dirulaguntzak, estatu-ko laguntzak ez direnak: 225.000 euro.

Proiektu zk.: 2009/0012		
Partida	Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
0808/G/432109/73299	2023	150.000
0808/G/432109/75100	2023	75.000

c) 3. arloa: Bilbao Bizkaiako turismo-produktuak sendotzeko dirulaguntzak, estatu-ko laguntzak ez direnak: 110.000 euro.

Proiektu zk.: 2009/0012		
Partida	Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
0808/G/432109/43299	2023	60.000
0808/G/432109/45100	2023	50.000



- d) 4. arloa: Turismo-ekosistema jasangarrirako proiektuak bultzatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak: 125.000 euro.

Proiektu zk.: 2009/0012		
Partida	Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
0808/G/432109/73299	2023	50.000
0808/G/432109/75100	2023	75.000

- e) 5. arloa: Sektore-lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak: 45.000 euro.

Proiektu zk.: 2009/0012		
Partida	Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
0808/G/432109/43299	2023	20.000
0808/G/432109/45100	2023	25.000

- f) 6. arloa: Helmuga digitalizatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak: 140.000 euro.

Proiektu zk.: 2009/0012		
Partida	Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
0808/G/432109/43299	2023	20.000
0808/G/432109/45100	2023	120.000

- g) 7. arloa: Bisitarientzako arreta hobetzeko dirulaguntzak: 50.000 euro.

Proiektu zk.: 2009/0012		
Partida	Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
0808/G/432109/43299	2023	25.000
0808/G/432109/45100	2023	25.000

- h) 8. arloa: Merkatuetan turismoa sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak: 215.000 euro.

Proiektu zk.: 2009/0012		
Partida	Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
0808/G/432109/43299	2023	95.000
0808/G/432109/45100	2023	120.000

- i) 9. arloa: Bilbao Bizkaiako turismo-baliabideak sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak: 25.000 euro.

Proiektu zk.: 2009/0012		
Partida	Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
0808/G/432109/74300	2023	10.000
0808/G/432109/74900	2023	15.000

- j) 10. arloa: Bilbao Bizkaiako turismo-produktuak sendotzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak: 45.000 euro.



Proiektu zk.: 2009/0012		
Partida	Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
0808/G/432109/44300	2023	25.000
0808/G/432109/45100	2023	10.000
0808/G/432109/44900	2023	10.000

- k) 11. arloa: Turismo-ekosistema jasangarrirako proiektuak bultzatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak: 45.000 euro.

Proiektu zk.: 2009/0012		
Partida	Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
0808/G/432109/74300	2023	10.000
0808/G/432109/74900	2023	35.000

- l) 12. arloa: Sektore-lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak: 10.000 euro.

Proiektu zk.: 2009/0012		
Partida	Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
0808/G/432109/45100	2023	10.000

- m) 13. arloa: Helmuga digitalizatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak: 65.000 euro.

Proiektu zk.: 2009/0012		
Partida	Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
0808/G/432109/44300	2023	25.000
0808/G/432109/45100	2023	30.000
0808/G/432109/44900	2023	10.000

- n) 14. arloa: Merkatuetan turismoa sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak: 100.000 euro.

Proiektu zk.: 2009/0012		
Partida	Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
0808/G/432109/44300	2023	50.000
0808/G/432109/45100	2023	30.000
0808/G/432109/44900	2023	20.000

3. Aurrekontuko partidei esleitutako kopuruak gutxi gorabeherakoak dira. Onartzen diren eskabideen arabera —eta erakunde onuradunen izaera juridikoak eta diruz lagundutako gastuen kontzeptuak askotarikoak izan daitezke—, aurrekontuko partidei esleitutako baliabide ekonomikoak partiden edo arloen artean egokitu ahal izango dira gastua aldatzeko espedienteen bidez edo espedienteen bidez. Horretarako, ez da beharrezkoa izango foru-dekretu hau aldatzea, betiere partiden zenbateko osoak ezarritako muga gainditzen ez badu. Organo emaeleak argitaratuko du behin betiko banaketa emakida ebazpenaren aurretik deialdiaren bitarteko berberetan. Publizitate horrek ez du esan nahi eskari berriak aurkezteko epea irekiko denik, ezta ere ebazteko epe berria hasiko denik.



4. Baliabide ekonomikoak arloen artean berregokitzen badira, lehentasun-hurrenkera honi jarraituko zaio:

- a) Lehenik eta behin, kredituak helburu bera duten arloen artean banatuko dira, hau da, honako arlo hauen artean: 2 eta 9, 3 eta 10, 4 eta 11, 5 eta 12, 6 eta 13 eta 8 eta 14.
- b) Bigarrenik, 1., 4., 5., 6., 11., 12. eta 13. arloek izango dute lehentasuna hartzaile gisa.
- c) Hirugarrenik, oraindik kreditu erabilgarria geratzen bada, gainerako arloen artean banatuko da.

Lehentasun-maila bakoitzean kredituak banatzeko modua proiektuen puntuazio-ordenaren arabera izango da, baldin eta, beharrezko gutxieneko puntuazioa lortu arren, krediturik ezagatik dirulaguntzarik jaso ezin badute. 2 proiekturen edo gehiagoren arteko berdinketa gertatuz gero eta kreditu gehiago geratzen ez bada, horien artean hainbanatuko da zenbatekoa.

5. Deialdi honetan ageri den gehieneko zenbatekoa gutxi gorabeherakoa da eta, beraz, 5/2005 Foru Araua garatzeko dirulaguntzen erregelamendua onesten duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren (aurrerantzean 34/2010 Foru Dekretua) 41.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen aldatu ahal izango dira aurrekontu-kredituak, Gobernu Kontseiluak onetsitako foru-dekretu baten bidez, kontuan izanda zein den, aurreikuspenen arabera, eskatutako dirulaguntzen zenbateko osoa. Hala eginez gero, eskabideak aurkezteko epea luzatu behar izango da.

6. 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurrekontu zuzkiduraren zenbateko osoa gehienez ere zenbateko osagarri honekin handitu ahalko da 300.000 euroak:

- a) Edo zenbateko osagarria dagoenean eta zenbateko hori deialdi batzuentzat aurreikusitako zenbateko txikiagorekin ebatzitako aurreko deialdietatik datorrenean.
- b) Edo emandako dirulaguntzak baino zenbateko txikiagoengatik aurreko deialdietatik eratorritako betebeharrak aitortu edo likidatu direnean.
- c) Edo honakoak onetsi direlako eskuragarri dauden kreditu handitzea dagoenean:
 - 1) Kreditu handitzeak.
 - 2) Kredituak sortzea.
 - 3) Kredituak sartzea.

Zenbateko osagarriaren eraginkortasuna kreditu eskuragarritasun deklarazioaren baldintzapean egongo da; deklarazioa dirulaguntzaren emakida ebatzi aurretik egin beharko da. Handitze hori organo emaileak baimenduko du eta eskuragarri dauden kredituen deklarazioa argitaratu beharko du emakida ebazpenaren aurretik deialdiaren bitarteko berberetan. Gainera, publizitateak ez du esan nahi eskari berriak aurkezteko epea irekiko denik, ezta ere ebazteko epe berria hasiko denik.

7. Deialdiko eskabide guztiak ebatzi ondoren, guztira dirulaguntzetarako emandako diru kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa balitz, gastu-baimenaren ezeztapena tramitatuko litzateke, soberan den zenbatekoan, foru-dekretu hau aldatu beharrik gabe.

II. KAPITULUA

ARAUBIDE JURIDIKOA

60. oinarria. — *Araubide juridikoa*

1. Deialdi honetan ezarritako dirulaguntzak araudi honekin bat arautuko dira: oinarri hauek, 5/2005 Foru Araua, 34/2010 Foru Dekretua, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.



2. Era berean, nola 9, 10, 11, 12, 13 eta 14 arloetan ematen diren dirulaguntzak de minimis laguntzat joko diren, honako araudi hauen pean egongo dira: Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamendua, 2013ko abenduaren 18koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa, eta Batzordearen 2020ko uztailaren 2ko 2020/972 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez aldatzen baita 1407/2013 (EB) Erregelamendua, haren luzapenari dagokionez.

61. oinarria. — *Organo eskudunak*

1. Dirulaguntza-eskabideak Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zerbitzuak antolatu, ebaluatu eta izapidetuko ditu, Lurralde Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiaren agindupean

2. Espedienteak ebaztea Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari dagokio, instrukzio-organoak eta Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiko titullarrak proposatuta.

62. oinarria. — *Arau-haustea eta zehapenak*

1. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren IV. tituluan xedatzen dena izango da.

2. Aplikatu beharrekoa izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea (aurrerantzean 39/2015 Legea) ezarritakoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 40/2015 Legea ezarritakoa, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Eusko Legebiltzararen otsailaren 20ko 2/1998 Legea aurreko manuari kontra egin gabe xedatzen dena.

63. oinarria. — *Ez-betetzea eta dirulaguntza itzultzea*

1. Jarraian aipatzen diren kasuetan, itzuli egin beharko dira jasotako dirulaguntza, dirulaguntza ordaindu den unetik itzultzea erabakitzen den datara bitartean dagozkion berandutza-interesak, eta, hala badagokio, galdu egingo da dirulaguntza kobratzeko eskubidea.

- a) Oinarri hauetan, emakidaren ebazpenean edo aplikatu beharreko araudian ezarritako betebeharrak edo baldintzen bat betetzen ez denean.
- b) 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo 34/2010 Foru Dekretuan aurreikusitako kausaren bat gertatzen denean.

2. Itzuli beharreko diru-kopuruak zuzenbide publikoko sarreratzat joko dira, ondorio guztietarako.

3. Itzuli beharreko zenbatekoei aplikatu beharreko berandutze-interesa 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan aurreikusitakoa izango da.

4. Dirua itzultzeko prozedura 5/2005 Foru Arauaren II. tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren III. tituluan xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

5. Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak ez betetzeak mailakatzeko irizpideak honako hauek izango dira:

- a) Dirulaguntza ematea eragin zuen proiektuaren gastua ez bada xedatzen deialdian ezarritako epean, emandako dirulaguntza osoa galduko da.
- b) Dirulaguntza ematea eragin zuen jarduketaren gastuaren zati bat soilik xedatzen bada deialdian ezarritako epean, galdu egingo da xedatu ez den zatiari dagokion dirulaguntza, betiere xedapen partzial horrek diruz lagundutako jarduketaren helburua lortzea eragozten ez badu.
- c) Jarduketa gauzatzeko epeak betetzen ez badira, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, berandutze-interesekin batera. Hala ere, jarduketak ez badira amaitu epe orokorrean, baina zatiren bat epe barruan egin bada, epe barruan egin ez den zatiren dirulaguntzaren zenbatekora mugatuko da itzultzeko be-



tebeharra, baldin eta gauzatze partzial horrek ez badu eragozten jarduketaren xedea lortzea.

- d) Ekintzak edo gastuak gauzatu edo justifikatzean ez-betetze partziala gertatzen bada, itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-irizpidearen arabera zehaztuko da, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzen erakunde eta ez-betetze maila kontuan hartuta.
- e) Gehiegizko finantzaketa gertatzen bada, aldi berean beste laguntza batzuk jaso direlako –5/2005 Foru Arauaren 18.3. artikuluan jasotako balizkoa–, behar denaren gainetik jasotako kopurua itzuli beharko da, eta kopuru horri dagokion berandutze-interesa ezarriko zaio.
Berdin-berdin jokatu da de minimis baldintzak betetzen ez badira baimendutako laguntzak gainditzeagatik (9, 10, 11, 12, 13 eta 14 arloak).
- f) Eskaera baloratzeko erabili ziren elementuak desbideratu edo bete ez badira, emandako dirulaguntza oso-osorik ala zati batean galduko da, elementu horiek guztizko puntuazioan duten garrantziaren arabera eta dirulaguntza ematean edo dirulaguntzaren zenbatekoan duten garrantziaren arabera.
- g) Hedapen, gardentasun, hizkuntza koofizialen erabilera, genero berdintasun eta bestelako gizarte politika betebeharrak betetzen ez badira kobratzeko eta/edo itzulketa partziala jasotzeko eskubidea galduko da gehienez ere emandako dirulaguntzaren %10eko zenbatekoan. Kasu bakoitzarentzat adierazitako gehieneko mugaren barnean emandako dirulaguntzaren ehunekoa zehazteko proportzionaltasun printzipioa aplikatuko da honako irizpideen arabera: bete ez diren betebeharrak, horien tamaina, onuradunak horiek bete edo bete ez dituen, ez-betetzearen arrazoiak eta ez-betetze horiek nola eragiten duten helburuak lortzean, jarduera egitean, proiektua egikaritzean edo dirulaguntzaren emakida oinarritzen duen jokaera izatean.
- h) Oinarri hauetan ezarritako azpikontratazioaren baldintzei buruzko betebeharrak eta gainerako betebeharrak betetzen ez badira, emandako dirulaguntza osoz edo zati batean galduko da, oinarrietan xedatutakoaren arabera, eta, berariazko aurreikuspenik ezean, itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-irizpidearen arabera ezarriko da, ez-betetzeak lortu nahi den helbururako duen garrantzia eta interes publikorako duen garrantzia kontuan hartuta.

64. oinarria. – *Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea*

1. Onuradunak berak Administrazioaren aurretiazko errekerimendurik gabe egindakoa da borondatezko itzulketa.
2. Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatu ditu 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera eta pertsona edo erakunde onuradunak behin betiko itzulketa benetan egin duen unera arte.
3. Onuradunak berak bere borondatez itzuli nahi badu dirulaguntza, ordainketa-gutuna erabili beharko du, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren arabera, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualean eskatu eta gero.

V. TITULUA

DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

65. oinarria. – *Dirulaguntza-eskabideak aurkezteko lekua, era eta epea eta ondorengo izapideak*

1. Dirulaguntza-programa honetan parte hartu nahi duten pertsonak konpromisoa hartuko dute Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez (<http://www.bizkaia.eus/sustapena-oficinavirtual>) dirulaguntza jasotzeko eskaera formalizatzeko, dokumentazioa bidaltzeko, justifikazioak egiteko, errekursoak jartzeko, alegazioak egiteko, dagoeneko irekita dauden espedientei buruzko aldaketak aurkezteko eta edozein iza-



pide egiteko. Izan ere, kontuan izanik erakundeon gaitasun ekonomiko eta tekniko eta haien dedikazio profesionala, ulertu behar da bermaturik dutela behar diren bitarteko teknologikoak eskuratu eta erabiltzeko modua, 39/2015 Legearen 14. artikularekin bat etorrira.

2. Interneten aurkeztu behar dira eskaerak, « Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtuala » atalean, Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orri instituzionaleko egoitza elektronikoan.

3. Bulego birtualean sartzeko, bertan adierazten den indarreko araudiaren arabera onartutako identifikazio eta sinadura elektronikoko edozein bide erabili ahal izango da. Bitarteko horiei esker, eskaerak egin daitezke pertsona juridikoen ordezkari gisa. Identifikazio eta sinadura elektronikorako B@kQ txartela erabili nahi izanez gero, jakinarazten da Ekonomia Sustatzeko Sailaren egoitzan eskura daitekeela (Orueta apezpikua 6, Bilbao).

4. Eskabidea aurkezteko ezinbestekoa izango da pertsona hori Ekonomia Sustatzeko Sailaren erakunde eta pertsona fisikoen erregistroan alta emanda egotea (erregistro hori Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 14ko 109/2016 Foru Dekretuan araututa dago). Egoera horretan ez badago, pertsona edo erakunde horrek inskripzio-eskabidea bete beharko du bulego birtualean, dirulaguntza-eskabidea izapidetu baino lehen.

5. Eskabideekin batera, hurrengo oinarrian adierazitako dokumentazioa aurkeztu behar da, bulego birtualean dagoen agiriak eransteke sistema erabilita. Era berean, eskabide horietan eskatutako informazioa eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dira.

6. Hona eskabideak aurkezteko epea: 2023ko apirilaren 3ko 8:30etik 2023ko maiatzaren 12ko 13:30era.

66. oinarria. — Eskabidea egiteko beharrezko dokumentazioa

1. Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez aurkeztutako eskabideak bulego birtualaren bidez bete eta aurkezteko dauden eredu espezifikoaren arabera-koak izango dira, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira.

2. Eskabidea egiten den unean, erantzukizunpeko adierazpena izenpetuko da, erakunde eskatzailearen baimen eta konpromisoekin batera, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren formularioaren arabera.

3. Era berean, erakundeak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko egoera-aitorpen bat sinatuko du, eta bertan adieraziko du BEZak kostu erreala eta efektiboa dakarkion, osorik edo zati batean, edo, aitzitik, zerga-araudi aplikagarriaren arabera berreskuratu edo konpentsatu dezakeen. Aitorpena Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualeko formularioaren arabera egingo da. Erakundeak adierazitako datuak Bizkaiko Foru Ogasunarekin egiaztatuko dira.

4. Erakunde onuradunek nahi adina eskabide aurkeztu ahal izango dituzte. Nola-nahi ere, arlo bakoitzerako ezarritako laguntzen banakako zenbatekoaren muga beteko dute, bai eta dekretu honen bidez lortutako laguntzak metatzeko ezarritako 120.000 euroko gehieneko muga ere.

Eskabide batean proiektu bat baino gehiago jasotzen bada, aurrekontu handiena duen proiektua bakarrik hartuko da kontuan.

5. Eskabideekin batera, dokumentazio orokorrari (67. oinarria), dokumentazio espezifikoari (68. oinarria) eta, hala badagokio, baloraziorako dokumentazioari (69. oinarria) buruzko oinarrietan zehaztutako dokumentazio administratibo eta tekniko aurkeztu beharko da.

6. Ekonomia Sustatzeko Sailak, Bizkaiko Elkarrengarritasun Nodoaren bidez eta/edo dagozkion elkarrengarritasun-zerbitzuen bidez, aurkeztu diren eskabideen administrazio-izapideak egiteko eskatutako pertsona eta erakunde interesdunen datuak egiaztatu eta kontsultatuko ditu, 39/2015 Legearen 13., 28. eta 53. artikuluetan aitortutako eskubideei kalterik egin gabe.



Laguntza-eskaerak berekin ekarriko du beste bitarteko batzuen bidez beste administrazio publiko batzuetatik informazio egokia lortzeko baimena, baldin eta arrazoi teknikoengatik ezin bada lortu elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez.

Arrazoi teknikoak direla eta, ez bada posible informazioa zuzenean beste administrazio batzuetatik eskuratzea, Ekonomia Sustatzeko Saileko Kanpo Sustapenerako eta Turismorako Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

67. oinarria. — Dokumentazio orokorra

1. Jardueren memoria bat, proiektuari edo ekintzari buruzko informazioa zehaztuz, honako apartatu hauek kontuan hartuta:

- a) Jarduketa-eremuan garatu beharreko ekintzaren deskribapena; Bilbao Bizkaia-ren garapen turistikoa jasangarriko duen garrantzia islatuko da.
- b) Garatu beharreko ekintza nola egokitzen zaion eskabidea aurkeztu den arloari eta diruz lagundu daitekeen egitateari, bai eta eskatutako baldintzak betetzen dituela ere.
- c) Garatu beharreko ekintzaren helburuen definizioa.
- d) Jarduketa aztertze, garatzeko eta zabaltzeko faseak.
- e) Hala badagokio, jarduketa hobeto ulertzeko elementu grafikoak edo ikus-entzunezkoak.

2. Memoria ekonomiko bat, honako hauek zehaztuko dituen:

- a) Proiektuaren gastuen zerrenda, kontzeptuen arabera banatuta. Bidezkoa bada eta gastu horiekin lotuta badaude, eskatu diren aurrekontuak sartuko dira.

66.3 oinarriaren arabera, eskaera egiten duen unean erakundeak Balio Erantsiaren gaineko Zergari (BEZ) buruzko egoera-aitorpenean adierazitakoarekin bat etorritik, honako hau egingo da:

- 1) Gastuek Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) barne hartuko dute, baldin eta diruz lagundutako jarduerara soilik bideratutako ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeari edo inportatzeari badagokio, eta jarduera hori EZ bada eragiketa lotu eta salbuetsi gabea; beraz, BEZa kostu erreal eta efektiboa da erakundearentzat.
- 2) Gastuetan ez da BEZa sartuko, guztiz berreskuratu edo konpentsatu badaiten.
- 3) Gastuetan BEZaren zati bat sartuko da erakundearen jardura hainbanatze-arauari lotuta dagoenean. Kasu horretan, erakundeak berreskuratu edo konpentsatu ezin duen BEZaren zatia sartuko da.
- b) Aurrez ikusitako diru-sarreraren zerrenda; berariaz identifikatuko dira proiektu bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk, bai eskatutakoak, bai eskuratutakoak.

3. Hartzekodunaren fitxa behar bezala beteta, eskaera lehenengoz egiten dutenentzat bakarrik, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiaren hartzekodunen fitxategian erregistratuta egon arren, banku-kontuko edo sozietatearen egoitzako datuen bat aldatu dutenentzat ere. Eskabideak aurkezteko, Ekonomia Sustatzeko Saileko Bulego Birtualean agertzen den eskabide-eredua erabiliko da.

4. Hala badagokio, hornitzaile desberdinen hiru eskaintza, diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak kontratu txikirako zehazten diren zenbatekoak gainditzen dituen.

68. oinarria. — Berariazko dokumentazioa

1. Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da 1. arloan (Turismo-kudeaketako ekosistema indartzeko dirulaguntzak):

- a) Egin beharreko eginkizunen deskribapen laburra.



- b) Gainera, teknikaria jardunean badago, curriculum vitae eta turismoko diplomatura- edo gradu-titulazioaren edo turismo-helmugen kudeaketan egiaztatutako bi (2) urteko esperientziaren akreditazioa. Era berean, kontratua, nominak eta RNTak, edo Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta ematea zuzeneko kontratazioaren kasuan, edo aholkularitza-kontratua, hala badagokio.
- 2. Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute 2. arloan (Bilbao Bizkaiaiko turismo-baliabideak sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak):
 - a) I. eranskinetako turismo-baliabidearen jabearen berariazko baimena, titularra ez denean.
 - b) Bizkaiko udalek eta beste tokiko erakunde batzuek, beren eragin-eremukokudeaketa turistikorako erakundearen berariazko baimena, 8. oinarrian diruz lagundu daitekeen egitatearekin zerikusia duena.
- 3. 3. arloan (Bilbao Bizkaiaiko turismo-produktuak sendotzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak) bere eragin-eremukokudeaketa turistikorako erakundearen berariazko baimena aurkeztu beharko da.
- 4. Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da 4. eta 11. arloetan (Turismo-ekosistema jasangarrirako proiektuak bultzatzeko dirulaguntzak):
 - a) Bizkaiko udal turistikoak: beren eragin-eremukokudeaketa turistikorako erakundearen berariazko baimena, 16. oinarrian diruz lagundu daitekeen egitatearekin zerikusia duena.
 - b) EAEko sektoreko enpresa-elkarte turistikoak:
 - 1) Bizkaiko Lurralde Historikoko produkzio-zentroekin lotutako langile-kopurua egiaztatzen duen dokumentazioa, Bizkaiko eta EAEko gainerako lurraldeetako kopurua adieraziz.
 - 2) Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako inbertsioaren xehetasuna.
 - c) Turismo-enpresak eta izaera turistikoa duten nortasun juridiko propioerik gabeko erakundeak, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako kotizazio-kontuaren kode baten egoera-txostena, 2. oinarrian adierazitakoen EJSNren egiaztagirigisa, edo, turismo-proiektuetan/-bezeroetan aurreko ekitaldiko guztizkoaren %50etik gorako fakturazioa dutela egiaztatzen duen agiria.
- 5. 7. arloan (Bisitariantzako arreta hobetzeko dirulaguntzak) Bizkaiko udal turistikoek beren eragin-eremukokudeaketa turistikorako erakundearen berariazko baimena aurkeztu beharko dute, 28. oinarrian diruz lagundu daitekeen egitatearekin zerikusia duena.
- 6. 9. arloan (Bilbao Bizkaiaiko turismo-baliabideak sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak) turismo-enpresek eta izaera turistiko propioa duten nortasun juridikorik gabeko erakundeek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:
 - a) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako kotizazio-kontuaren kode baten egoera-txostena, 2. oinarrian adierazitakoen EJSNren egiaztagirigisa, edo, turismo-proiektuetan/-bezeroetan aurreko ekitaldiko guztizkoaren %50etik gorako fakturazioa dutela egiaztatzen duen agiria.
 - b) I. eranskinetako turismo-baliabidearen jabearen berariazko baimena, titularra ez denean.
- 7. Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da 10. arloan (Bilbao Bizkaiaiko turismo-produktuak sendotzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak):
 - a) EAEko sektoreko enpresa-elkarte turistikoak:
 - 1) Bizkaiko Lurralde Historikoko eta EAEko gainerako lurraldeetako produkzio-zentroetan bazkide tututako pertsonen kopurua egiaztatzen duen dokumentazioa.
 - 2) Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako inbertsioaren xehetasuna.
 - b) Turismo-enpresak eta izaera turistikoa duten nortasun juridiko propioerik gabeko erakundeak, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako kotiza-



zio-kontuaren kode baten egoera-txostena, 2. oinarrian adierazitakoen EJSNren egiaztagiri gisa, edo, turismo-proiektuetan/-bezeroetan aurreko ekitaldiko guztizkoaren %50etik gorako fakturazioaren egiaztageria.

8. 12. arloan (Sektore-lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak) EAEko sektoreko enpresa-elkarte turistikoek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- a) Bizkaiko Lurralde Historikoko eta EAEko gainerako lurraldeetako produkzio-zentroetan bazkideetako pertsonen kopurua egiaztatzen duen dokumentazioa.
- b) Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren parte-hartzaileen kopuruaren egiaztageria.

9. Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da 13. arloan (Helmuga digitalizatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak):

- a) EAEko sektoreko enpresa-elkarte turistikoak: Bizkaiko Lurralde Historikoko eta EAEko gainerako lurraldeetako produkzio-zentroetan bazkideetako pertsonen kopurua egiaztatzen duen dokumentazioa.
- b) Turismo-enpresak eta izaera turistikoa duten nortasun juridiko propiorik gabeko erakundeak, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako kotizazio-kontuaren kode baten egoera-txostena, 2. oinarrian adierazitakoen EJSNren egiaztagiri gisa, edo, turismo-proiektuetan/-bezeroetan aurreko ekitaldiko guztizkoaren %50etik gorako fakturazioaren egiaztageria.

10. Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da 14. arloan (Merkatuaren turismoa sustatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.):

- a) EAEko sektoreko enpresa-elkarte turistikoak: Bizkaiko Lurralde Historikoko eta EAEko gainerako lurraldeetako produkzio-zentroetan bazkideetako pertsonen kopurua egiaztatzen duen dokumentazioa.
- b) Turismo-enpresak eta izaera turistikoa duten nortasun juridiko propiorik gabeko erakundeak, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako kotizazio-kontuaren kode baten egoera-txostena, 2. oinarrian adierazitakoen EJSNren egiaztagiri gisa, edo, turismo-proiektuetan/-bezeroetan aurreko ekitaldiko guztizkoaren %50etik gorako fakturazioaren egiaztageria.

69. oinarria. — *Balorazioa egiteko beharrezkoa den informazioa*

1. Aurreko epigrafean eskatutako dokumentazioaz gain, eskabideak aurkezteko epean, erakundeak 73-81. oinarrietako balorazio-irizpideetan adierazitako puntuazioa lortzeko egokitzen jotzen dituen agiriak eta datuak aurkeztuko ditu. Epe horretan behar den informazioa ematen ez bada, ez da ebaluatuko dagokion balorazio-irizpidea.

2. Zehazki, balorazio-irizpideetan adierazitako puntuazioa lortzeko beharrezkoa den informazioa honako hau izango da:

- a) 2. eta 9. arloetan. Bilbao Bizkaiko turismo-baliabideak sustatzeko dirulaguntzak.
 - 1) Proiektuak III. eranskineko taulan jasotako adierazleetan izango duen inpak-tua zehaztea.
 - 2) Proiektuarekin lortzen den turismo-baliabidearen digitalizazio-mailari buruzko azalpena.
 - 3) Turismo-fluxua neurtzeko sistemari buruzko informazioa, bisitariaren profila eta jarduna, eta proiektuarekin lortzen den eskariaren aurreikuspena.
 - 4) Jarduketarekin lortzen den irisgarritasunaren azterketa.
- b) 3. Eta 10. Arloetan. Bilbao Bizkaiko turismo-produktuak sendotzeko dirulaguntzak.
 - 1) Eragileen arteko lankidetzak egiaztatzen duen dokumentazioa.
 - 2) Orain arte lortutako produktuaren garapen-mailaren justifikazioa.
 - 3) Proiektuarekin lortzen den turismo-produktuaren digitalizazio-mailari buruzko azalpena.
 - 4) Proiektuak III. eranskineko taulan jasotako adierazleetan izango duen inpak-tua zehaztea.



- 5) Proiektuaren bideragarritasun-plana, hala badagokio.
- c) 4. eta 11. arloetan. Turismo-ekosistema jasangarrirako proiektuak bultzatzeko dirulaguntzetan, proiektuak III. eranskineko taulan jasotako adierazleetan izango duen inpaktua zehaztea (ekonomia, ingurumen eta gizarte-inpaktua).
- d) 5. eta 12. arloetan. Sektore-lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak.
 - 1) Eragileen arteko elkarlana egiaztatzen duen dokumentazioa.
 - 2) Prestakuntza-ekintzaren xede diren parte-hartzaileen kopurua eta emakumeen ehunekoa.
 - 3) Prestakuntza-saioaren edo -saioen gaiak.
 - 4) Prestakuntza-saio edo -saioen metodologiaren azalpena.
- e) 6. arloan: Helmuga digitalizatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak.
 - 1) Proiektuaren aurretiazko digitalizazioaren garapen-mailaren justifikazioa (aurretiko diagnostikoa, diseinu aurreratua edo testatua duen jarduketa).
 - 2) Inplikaturako sektoreak eta azpisektoreak adieraztea.
 - 3) Proiektua kudeatzeko elkarlana egiaztatzen duen dokumentazioa.
 - 4) Erabiltzaileen esperientziaren hobekuntza zehaztea (esperientzia ingurutzalea, bisita autonomoa eta/edo esperientzia inklusiboa).
 - 5) Erakundeak turismo-jardueran egiten dituen jarduketa-prozesuen efizientzia hobetzeko azterketa.
 - 6) Proiektua gauzatzearekin enplegua sortzeko aurreikuspena, sexuaren arabera bereizita.
- f) 7. arloan: Bisitarientzako arreta hobetzeko dirulaguntzak.
 - 1) Irisgarritasun unibertsalaren hobekuntzaren, gizarteratzearen edo proiektuaren gizarte- eta kultura-aniztasunaren aldeko konpromisoaren azalpena (egindako azterketa, hartutako konpromisoa eta abar).
 - 2) Jarduketaren kokapena zehaztea.
 - 3) 79.3 oinarriko balorazio-irizpiderako, bisitarien etorrerari dagokionez, turismo-baliabideari edo ekitaldiari buruzko informazioa, hala badagokio.
 - 4) Hala badagokio, turismo-informazioko bulegoak ematen duen informazioari dagokionez, jarduketarekin lotuko den digitalizazio-maila zehaztea.
- g) 8. eta 14. arloetan. Merkatuetan turismoa sustatzeko dirulaguntzak.
 - 1) Sustapena zer merkaturi zuzentzen zaion zehaztea.
 - 2) Sustatutako produktuaren edo xede duen segmentu espezifikoaren zehaztapena.
 - 3) Sustapen-ekintzetako parte-hartzaileen kopurua (enpresak) adieraztea eta identifikatzea, hala badagokio.
 - 4) Sustapen-ekintzaren irismen geografikoaren xehetasuna, xede den biztanleria-kopurua adierazita.
 - 5) Sustapen-ekintzen eragile turistiko igorle edo komunikabide/influencer-en kopuruaren zerrenda.
 - 6) Sustapen-ekintzaren inpaktu digitalaren aurreikuspena.
 - 7) Sustapen-ekintza kudeatzeko elkarlana egiaztatzen duen dokumentazioa.
 - 8) Sustapena aurreko edizioetan egin bada, honako hauek aurreztuko dira:
 - 8.1) Azken edizioko irismenaren datuak.
 - 8.2) Azken edizioko inpaktu digitalaren datuak.
- h) 13. arloan: Helmuga digitalizatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak.
 - 1) Proiektuaren aurretiazko digitalizazioaren garapen-mailaren justifikazioa (aurretiko diagnostikoa, diseinu aurreratua edo testatua duen jarduketa).
 - 2) Inplikaturako sektoreak eta azpisektoreak adieraztea.



- 3) Proiektua kudeatzeko elkarlana egiaztatzen duen dokumentazioa.
- 4) Erabiltzaileen esperientziaren hobekuntza zehaztea (esperientzia inguratzaila, bisita autonomoa eta/edo esperientzia inklusiboa).
- 5) Mozkinei dagokienez espero den hazkundearen azterketa.
- 6) Proiektua gauzatzearekin enplegua sortzeko aurreikuspena, sexuaren arabera bereizita.

70. oinarria. — Eskabidea zuzentzea edo hobetzea

1. Eskabideak elektronikoki, estandarrak eta formatuak betetzen ez badituzte, termino guztiak betetzen ez badira, edo eskabidearekin batera foru-dekretu honetako dokumentazio orokorraren atalean (67. oinarria) edo dokumentazio espezifikoaren atalean (68. oinarria) eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, errekerimendua egingo zaio interesdunari, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.

2. Instrukzio-organoak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia bildu ahal izango du, Saileko langileek bisitak egitea barne.

71. oinarria. — Dirulaguntza emateko prozedura

1. Norgehiagoka da dirulaguntzak emateko erabiliko den prozedura; horretarako, deialdi eta hautaketa-prozedura bakarrak egingo dira.

2. Foru-dekretu honen ondorioetarako, honako hau jotzen da norgehiagoka prozeduratzat: dirulaguntzak emateko, aurkeztu diren eskabideak konparatzea, eta, aurretik ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera, lehentasun-hurrenkera ezartzea, erabilgarri dagoen kredituaren arabera, puntuazio handiena lortu dutenei dirulaguntzak adjudikatzeko.

72. oinarria. — Eskabideak baloratzeko irizpideak

1. Dagokion jarduketa-arloaren arabera, diruz lagun daitekeen jarduerak gutxieneko puntuazioa lortu beharko du, eta ondoren zehazten den gehieneko puntuazioa lortu ahal izango du:

- a) 1. arloa, gutxienez 30 puntu eta gehienez 60 puntu.
- b) 4., 5., 6., 11., 12. eta 13. arloak, gutxienez 20 puntu eta gehienez 60 puntu.
- c) 2., 3., 7., 8., 9., 10. eta 14. arloak, gutxienez 20 puntu eta gehienez 40 puntu.

2. Eskabideak 73-81 oinarrietako irizpideen arabera baloratu eta ponderatuko dira.

3. Bi proiekturen edo gehiagoren arteko berdinketa gertatuz gero eta kreditu gehiago geratzen ez bada dagokion arloan, horien artean hainbanatuko da zenbatekoa.

73. oinarria. — Balorazio irizpideak - 1. arloa. Turismo-kudeaketako ekosistema indartzeko dirulaguntzak

1. Diruz lagun daitezkeen beste jarduketa-arlo batzuetarako eskaeretan 30.000 euro edo gehiago lortzea: 25 puntu.

2. 4. arloan proiektu bat aurkeztea eta onuradun izatea: 25 puntu.
3. Egungo langileak mantentzea edo emakumeak kontratatzea: 5 puntu.
4. Antzeko lanpostu batean 5 urte baino gehiagoko esperientzia: 5 puntu.

74. oinarria. — Balorazio irizpideak - 2. eta 9. arloak. Bilbao Bizkaiko turismo-baliabideak sustatzeko dirulaguntzak

1. Turismo-baliabideak lehenestea: 10 puntu

l. eranskineko lehentasun-mailen arabera (10 puntu, gehienez).

- a) 0.A, 0.B eta 0.C: 10 puntu.



- b) 1A, 1B eta 1C: 8 puntu.
 - c) 2 A, 2 B eta 2C: 6 puntu.
 - d) 3 A, 3 B eta 3C: 4 puntu.
 - e) 4 A, 4B, 4C y 4D: 2 puntu.
2. *Proiektuaren osotasuna: 4 puntu*
- a) 2 lerrotan jardutea (8. eta 36. Oinarriak): 1 puntu.
 - b) 3 eta 5 lerrotan (8. eta 36. Oinarriak): 2 puntu.
 - c) 6 eta 9 lerrotan jardutea (8. eta 36. Oinarriak): 4 puntu.
3. *Iraunkortasuna: 6 puntu*
- a) Inpaktua izatea III. eranskineko taulako adierazle batean gutxienez: 2 puntu.
 - b) Inpaktua izatea III. eranskineko taulako 2-4 adierazletan: 4 puntu.
 - c) Inpaktua izatea III. eranskineko taulako 5 adierazle edo gehiagotan: 6 puntu.
4. *Proiektuarekin aurreikusitako turismo-baliabidearen digitalizazioa: 8 puntu (batuketa)*
- a) Teknologia aurreratua erabiltzen du: 4 puntu.
 - b) Aukera ematen du bisita osoa modu autonomoan egiteko: 2 puntu.
 - c) Aukera ematen du urrutiko bisita egiteko: 2 puntu.
5. *Proiektuak barne hartzen dituen neurketa-sistemak (jarraian jasotako alderdi hauek neurtzea ahalbidetzen dutenak): 6 puntu (batuketa)*
- a) Baliabide turistikoren fluxuen kontrola: 1 puntu
 - b) Bisitarien portaera eta profila ezagutzea: 2 puntu
 - c) Eskariaren iragarpena eta beste faktore batzuk: 3 puntu
6. *Proiektuarekin lortutako irisgarritasuna: 6 puntu (batuketa)*
- a) Aukera ematen die mugikortasun urriko pertsonei bisita osoa egiteko: 3 puntu.
 - b) Aukera ematen die beste dibertsitate mota bat duten pertsonei bisita egiteko: 1 puntu.
 - c) Langabeei edo gizarte-bazterketako arriskuan daudenei sartzeko laguntzen die: 1 puntu.
 - d) Generoari eta LGBTI aniztasunari buruzko ekintzetarako jarduketaren plan bat dauka: 1 puntu.

75. oinarria. — Balorazio irizpideak - 3. eta 10 arloak. Bilbao Bizkaiako turismo-produktuak sendotzeko dirulaguntzak

1. *Eragileen arteko lankidetzak: 10 puntu*
- Honako hauek kudeatzen dituzte proiektuak:
- a) 2 kudeatzaile pribatu baino gehiago: 2 puntu.
 - b) Turismoko 2 kudeatzaile publiko baino gehiago: 2 puntu.
 - c) 2-5 erakunde publiko eta pribatu: 6 puntu.
 - d) 6-10 erakunde publiko eta pribatu: 10 puntu.
2. *Produktu turistikoaren garapen-maila: 6 puntu (batuketa)*
- a) Egindako produktuaren azterketa edo proiektua 2 puntu.
 - b) Produktuarekin lotura duten inbertsio eginak: 2 puntu.
 - c) Produktuaren eta zerbitzu turistikoaren diseinua eginda: 2 puntu.
3. *Proiektuarekin aurreikusitako digitalizazioa: 8 puntu (batuketa)*
- a) Teknologia aurreratua erabiltzen du: 4 puntu.



- b) Aukera ematen du bisita osoa modu autonomoan egiteko: 2 puntu.
 - c) Aukera ematen du urrutiko bisita egiteko: 2 puntu.
4. *Proiektuak Bilbao Bizkaia helmugako turismo jasangarriaren adierazleetan izango duen inpaktua (III. eranskina): 10 puntu*
- a) Inpaktua izatea adierazle batean gutxienez: 2 puntu.
 - b) Inpaktua izatea 2-4 adierazletan: 6 puntu.
 - c) Inpaktua izatea 5 adierazletan edo gehiagotan: 10 puntu.

5. *Bideragarritasuna: 6 puntu*

Badu proiektuaren bideragarritasun-plana: 6 puntu.

76. oinarria. — Balorazio irizpideak - 4. eta 11. arloak. Turismo-ekosistema jasangarriko proiektuak bultzatzeko dirulaguntzak

Balorazio-irizpideak erantsitako III. taulan adierazitakoak dira (Turismo iraunkorraren adierazleak Bilbao Bizkaia). Balorazioa egiteko, ezinbestekoa izango da jasangarritasun turistikoko 3 eremuetatik bitan gutxienez eragitea (gizartean, ekonomian eta ingurumenean).

77. oinarria. — Balorazio irizpideak - 5. eta 12. arloak. Sektore-lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzak

- 1. *Sektoreko eragileen arteko lankidetzak: 9 puntu*
 - a) Modu publiko-pribatua kudeatutako proiektuak: 9 puntu.
 - b) Elkarteen arteko lankidetzak-proiektuak: 6 puntu.
 - c) Kudeaketa-erakundearen arteko lankidetzak-proiektuak: 6 puntu.
- 2. *Genero ikuspegia: 9 (batu egiten dira)*
 - a) Genero-ikuspegiari buruzko edukia duten ekimenak: 3 puntu.
 - b) Hizlarien %70 baino gehiago emakumeak dituzten ekimenak: 3 puntu.
 - c) Parte-hartzaileen % 70 baino gehiago emakumeak dituzten ekimenak: 3 puntu.
- 3. *Jarduketaren dimentsioa: 12 puntu*
 - a) Bizkaiko 4-10 profesionali zuzendutako jarduketak: 6 puntu.
 - b) Bizkaiko 11-20 profesionali zuzendutako jarduketak: 9 puntu.
 - c) Bizkaiko 20 profesional baino gehiagori zuzendutako jarduketak: 12 puntu.
- 4. *Ekimenaren gaia: 21 puntu*
 - a) Digitalizazioa (teknologia aurreratua, big data, IOT, mobile...): 21 puntu.
 - b) Jasangarritasuna eta GJHak kudeaketan txertatzea (trantsizio berde ekologikoa): 15 puntu.
 - c) Berrikuntza eta negozio-eredu berriak: 15 puntu.
 - d) On line merkaturatzea eta marketina turismo-sektorean: 15 puntu.
- 5. *Prestakuntzaren metodologia: 9 puntu*
 - a) Mentoring eta coaching-a: 9 puntu.
 - b) Prestakuntza-ikastaroak: 3 puntu.

78. oinarria. — Balorazio irizpideak - 6. arloa. Helmuga digitalizatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak ez direnak

- 1. *Hasierako garapen-maila: 15 puntu*
 - a) Aurretiazko diagnostikoa duten proiektuak: 5 puntu.
 - b) Diseinu aurreratua duten proiektuak: 10 puntu.
 - c) Testatuak edo pilotatuak izan diren proiektuak: 15 puntu.



2. *Inplikaturako sektoreak eta haien trakzioa: 10 puntu*
 - a) Sektore turistikoko azpisektore batzuk hartzen ditu barne: 6 puntu.
 - b) Sektore turistikoa eta beste sektore osagarri bat inplikatzeko: 8 puntu.
 - c) Esperientzia esportatzen du beste sektore batetik turismora: 10 puntu.
3. *Lankidetzak: 8 puntu*
 - a) Proiektua modu publiko-pribatua kudeatuko da: 8 puntu.
 - b) Proiektua elkarte hauekin elkarlanean egingo da: 5 puntu.
 - c) Proiektua kudeaketa-erakundeekin elkarlanean egingo da: 5 puntu.
4. *Erabiltzailearen esperientzia hobetzea: 19 puntu. (batu egiten da)*
 - a) Proiektuak erabiltzaileentzako esperientzia inguratzailerak lortuko du (360, multisentsoriala eta abar): 8 puntu.
 - b) Proiektuak erabiltzaileentzako bisita autonomoa lortuko du (urrutitik, autogidatuta eta abar): 6 puntu.
 - c) Proiektuak erabiltzaileentzako esperientzia inklusiboa lortuko du (irisgarria, linguistikoa eta abar): 5 puntu.
5. *Erakundeak turismo-jardueran dituen prozesuen efizientzia hobetuko du: 4 puntu*
6. *Proiektuekin sortutako enplegua: 4 puntu*
 - a) Lanaldi osoko lanpostu berri bat sortzea: 1 puntu.
 - b) Lanaldi osoko 2 lanpostu berri edo gehiago sortzea: 2 puntu.
 - c) Gutxienez emakumeen % 60 kontratatzea lanaldi osorako: 2 puntu. (Aurrekoei gehitu daitezke).

79. oinarria. — Balarazio irizpideak - 7. arloa. Bisitarientzako arreta hobetzeko dirulaguntzak

1. *Irisgarritasuna / Gizarte Kohesioa / Aniztasuna: 12 puntu (batu egiten dira)*
 - a) Informazio turismoko bulegoaren (aurrerantz, ITB) irisgarritasun unibertsala hobetzen duen proiektua: 6 puntu.
 - b) Gizarteratze-proiektua turismo-bulegoaren bitartez: 3 puntu
 - c) Gizarte- eta kultura-aniztasunarekiko konpromisoa garatzen duen proiektua: 3 puntu
2. *Turismo-bulegoaren hurbiltasuna: 6 puntu*
 - a) Bulego mugikorra edo euskarri digitala turismo-bulegotik 15 km baino gehiagora: 6 puntu.
 - b) Bulego mugikorra edo euskarri digitala 5-15 km turismo-bulegotik: 4 puntu.
 - c) Bulego mugikorra edo euskarri digitala turismo-bulegotik 5 km baino gutxiagora: 2 puntu.
3. *Jende asko biltzen da: 8 puntu*
 - a) Urtean 50.000 bisitari baino gehiagoko turismo-baliabide katalogatua duen udalerrian burututako jarduketa: 8 puntu.
 - b) Urtean 20.001 eta 50.000 bisitari arteko turismo-baliabide katalogatua duen udalerrian burututako jarduketa: 6 puntu.
 - c) Urtean 10.000 eta 20.000 bisitari arteko turismo-baliabide katalogatua duen udalerrian burututako jarduketa: 4 puntu.
 - d) Urtean 10.000 bisitari baino gutxiagoko turismo-baliabide katalogatua duen udalerrian burututako jarduketa: 2 puntu.
 - e) Ekitaldi jendetsu bat ospatzen den udalerrian hura ospatu bitartean egindako jarduketa, horretarako beharra justifikatuta: Puntu 1.



4. *Eskualde-oreka: 6 puntu*
 - a) Turismo-bulego 1 duten eskualdeak: 6 puntu.
 - b) 2-5 turismo-bulegoa dituzte eskualdeak: 4 puntu.
 - c) 5 turismo-bulego baino gehiago dituzten eskualdeak: 2 puntu.
 5. *Informazioa digitalizatzea: 8 puntu. (batu egiten dira)*
 - a) Teknologia aurreratua erabiltzen du: 4 puntu.
 - b) Aukera ematen du bisita osoa modu autonomoan egiteko: 2 puntu.
 - c) Aukera ematen du urrutiko bisita egiteko: 2 puntu.
- 80. oinarria. — Balorazio irizpideak - 8. eta 14. arloak. Merkatuetan turismoa sustatzeko dirulaguntzak (II. eranskina)**
1. *Merkatuak (2. oinarria): 6 puntu gehienez ere*
 - a) Euskadi: 1 puntu.
 - b) Estatua: 2 puntu.
 - c) Frantziako hego-mendebaldea: 2 puntu.
 - d) Lehentasunezko merkatuak: 6 puntu.
 - e) Aukera merkatuak: 4 puntu.
 - f) Taktikoak: 2 puntu.
 2. *Produktuak (2. oinarria): 6 puntu*
 - a) Produktu garatuak (txakolinaren mundua, kostalde bakana, marinelen kostaldea, landa-turismoa, erosketa sortzaileak, arkeologia eta ondare industrialak, natura eta paisaiak, parke naturalak eta museoak eta bildumak): 6 puntu.
 - b) Gainerako produktuak: 4 puntu.
 - c) Segmentu bereziak (LGBT, irisgarria): 4 puntu.
 - d) Behar bezala justifikatutako beste segmentu berezi batzuk: 2 puntu.
 3. *Parte-hartzaileak: 6 puntu*
 - a) Sustapen-ekintzak, non Bilbao Bizkaiko 1-10 turismo-enpresak parte hartzen duten: 2 puntu.
 - b) Sustapen-ekintzak, non Bilbao Bizkaiko 11-20 turismo-enpresak parte hartzen duten: 4 puntu.
 - c) Sustapen-ekintzak, non Bilbao Bizkaiko 20tik gora turismo-enpresak parte hartzen duten: 6 puntu.
 4. *Irismena: 4 puntu*
 - a) Miloi bat erabiltzaile baino gutxiagoko irismena duten sustapen-ekintzak: 1 puntu.
 - b) Milioi 1 eta 5 milioi erabiltzaile arteko irismena duten sustapen-ekintzak: 2 puntu.
 - c) 5 miloi baino gehiago eta 10 milioi erabiltzaile arteko irismena duten sustapen-ekintzak: 3 puntu.
 - d) 10 milioi erabiltzaile baino gehiagoko irismena duten sustapen-ekintzak: 4 puntu.
 5. *Negozio-aukera: 4*
 - a) Sustapen ekintzak, 1-10 agente turistiko igorle edo komunikabide/influencerrak dituztenak: 1 puntu.
 - b) Sustapen ekintzak, 11-25 agente turistiko igorle edo komunikabide/influencerrak dituztenak: 2 puntu.
 - c) Sustapen ekintzak, 26-50 agente turistiko igorle edo komunikabide/influencerrak dituztenak: 3 puntu.
 - d) 50etik gora agente turistiko igorle edo komunikabide/influencerrak dituzten sustapen-ekintzak: 4 puntu.



6. *Inpaktu digitala: 8 puntu (batu egiten dira)*
- a) Sare sozialetan jarraitzaileak handitzeko sustapen-ekintzak: 1 puntu.
 - b) Bezeroekiko erlazioen kudeaketan (aurrerantzean, CRM), leadak areagotzeko sustapen-ekintzak: 1 puntu.
 - c) Web-trafikoa areagotzeko sustapen-ekintzak: 1 puntu.
 - d) Bilbao Bizkaia markaren ezagutza areagotzeko sustapen-ekintzak: 2 puntu.
 - e) Sare sozialen, CRM delakoaren eta VisitBiscay turismo-webaren sustapen-ekintzak: 3 puntu.

7. *Lankidetza: 6 puntu*
- a) Modu publiko-pribatua kudeatutako sustapen-ekintzak: 6 puntu.
 - b) Elkarrekin elkarlanean eginiko sustapen-ekintzak: 4 puntu.
 - c) Kudeaketa-erakundeen arteko sustapen-ekintzak: 4 puntu.

81. oinarria. — Balorazio irizpideak - 13. arloa. Helmuga digitalizatzeko dirulaguntzak, estatuko laguntzak direnak

1. *Hasierako garapen-maila: 15 puntu*
- a) Aurretiazko diagnostikoa duten proiektuak: 5 puntu.
 - b) Dagoeneko diseinu aurreratua duten proiektuak: 10 puntu.
 - c) Testatuak edo pilotatuak izan diren proiektuak: 15 puntu.
2. *Inplikaturako sektoreak eta haien traxzioa: 10 puntu*
- a) Sektore turistikoko azpisektore batzuk hartzen ditu barne: 6 puntu.
 - b) Sektore turistikoa eta beste sektore osagarri bat inplikatzen ditu: 8 puntu.
 - c) Esperientzia esportatzen du beste sektore batetik turismora: 10 puntu.
3. *Lankidetza: 8 puntu*
- a) Proiektua modu publiko-pribatua kudeatuko da: 8 puntu.
 - b) Proiektua elkarte hauekin elkarlanean egingo da: 5 puntu.
 - c) Proiektua kudeaketa-erakundeekin elkarlanean egingo da: 5 puntu.
4. *Erabiltzailearen esperientzia hobetzea: 19 puntu. (batu egiten da)*
- a) Proiektuak erabiltzaileentzako esperientzia inguratzailea lortuko du (360, multisensoriala eta abar): 8 puntu.
 - b) Proiektuak erabiltzaileentzako bisita autonomoa lortuko du (urrutitik, autogidatuta eta abar): 6 puntu.
 - c) Proiektuak erabiltzaileentzako esperientzia inklusiboa lortuko du (irisgarria, linguistikoa eta abar): 5 puntu.
5. *Enpresarentzako errendimendua / errentagarritasuna: 4 puntu*
- Enpresaren mozkinen hazkundearen aurreikuspena (espero diren gastuen/dirusarreraren zerrenda): 4 puntu.
6. *Proiektuarekin sortutako enplegua: 4 puntu*
- a) Lanaldi osoko lanpostu berri bat sortzea: 1 puntu.
 - b) Lanaldi osoko 2-4 lanpostu berri sortzea: 2 puntu.
 - c) Gutxienez emakumeen % 60 kontratatzea lanaldi osorako: 2 puntu. (Aurrekoei gehitu daitezke).

82. oinarria. — Ebazpena

1. Espedientearen instrukzioa amaitutakoan, instrukzio-organoak ebazpen-proposamena egingo du, eta Lurralde Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendaritza



Nagusiko titularrari helaraziko dio. Azken horrek, era berean, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari igorriko dio ebazpen-proposamena, eta hark dagokion foru-aginduen bidez ebatziko du. Ebazpenean erabakiko da bai dirulaguntzak ematea, bai ezestea edo ez ematea. Arlo bakoitzeko ebazpen bat emango da.

2. Ebazpenak zerrenda ordenatu bat jasoko du, emandako laguntzena, ezespena eta eman ez direnena, eta, hala badagokio, horietako bakoitzari emandako puntuazioa adieraziko du, aurreikusitako balorazio-irizpideen arabera eta ezesteko eta ez emateko arrazioen arabera.

3. Dirulaguntza emateko ebazpenean, baldintza bereziak ezarri ahal izango dira, baldin eta uste bada ezen, proiektuen izaera berezia edo gertatzen diren beste inguruabar batzuk direla bide, egoki dela halako baldintzak ezartzea, hartara kasu bakoitzari egokitzeko eta aplikatzeko foru-dekretu honetan edo aplikatzekoak diren gainerako arauetan xedaturikoa.

4. Halaber, onarturiko dirulaguntza emateko ebazpenean adieraziko da de minimis erregelamenduari atxikitako laguntza dela, eta esplizituki adieraziko da dirulaguntza gordin baliokidearen zenbatekoa.

5. Eskaturiko dirulaguntza eman, ezetsi edo eman ez izana adierazten duen ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.

6. Ebazpena jakinarazi ondoren, hamar (10) eguneko epea izango dute onuradunek ebazpena onartzeko, eta epe hori berenberegiko adierazpenik egin gabe igarotzen bada, ebazpena isilbidez onartu dela ulertuko da.

7. Eskabideei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko epea sei (6) hilabetekoa izango da gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta. Epe horretan ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera ezetsizat joko da, administrazio-isiltasuna dela eta.

83. oinarria. — Errekurtsoak

1. Ebazpenak administrazio-bidea agortzen du, eta, 39/2015 Legearen 114., 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera, interesdunak aukerako berraztertze errekurtoa aurkeztu ahal izango dio Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, hilabete (1) epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri ahal da administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegiaren aurrean —txandaren arabera dagokiona—, bi (2) hilabete epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatuta, kontuan harturik zer ezartzen duen Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

3. Ezin izango dira bi errekurtsook aldi berean jarri.

84. oinarria. — Dirulaguntzari uko egitea

1. 34/2010 Foru Dekretuaren 48.3. artikuluan arautzen denarekin bat, onuradun gertatu den pertsona batek dirulaguntzari uko egiten badio, dirulaguntza ematen duen organoak erabaki dezake zerrendan hurrengo datozen eskatzaileei ematea (hurrenkaren puntuazioaren arabera), baldin eta nahikoa kreditu geratu bada aske kasuan kasuko eskabideei erantzuteko.

2. Dirulaguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die pertsona edo erakunde interesdunei, dirulaguntzaren proposamena onar dezaten, hamar (10) egun balioduneko epean; epe hori ezin da luzatu. Behin eskatzaileek proposamena onartuta, administrazio-organoak dirulaguntza emateko egintza emango du, eta haren jakinarazpena egingo du.

3. Uko egitea aurkezteko gehienezko epea hamar (10) egun balioduneko izango da, interesdunari dirulaguntzaren proposamena jakinarazten zaionetik hasita. Epe hori igarota, hortik aurrera uko egiterik gertatzen bada, dirulaguntza emateko baldintzak ez direla bete joko da.

**85. oinarria. — *Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea***

1. Pertsona onuradunek, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, baimena eska diezaioke Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, diruz lagundutako jardueraren ebazpenean aldaketak egin ahal izateko, hala nola, finkatutako epeak luzatzea, emandako zenbatekoa murriztea edo jarduera osatzen ekintzak aldatzea. Aldaketa horiek baimenduko dira ezohiko inguruabarrak daudenean edo jarduera ondo gauzatzeko beharrezkoak direnean, betiere dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarren pertsonen eskubideei kalte egiten ez bazaie. Aldaketa-eskaerak diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino bi hilabete (2) lehenago aurkeztu beharko dira gutxienez.

2. Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak ofizioz alda dezake dirulaguntza emateko ebazpena, onuradunari entzunaldia eman ondoren eta funtsak aplikatu aurretik; horretarako, bi baldintza hauek bete behar dira: batetik, laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzen aldaketek ezin izango dute eragotzi edo oztopatu laguntzaren bidez lortu nahi zen interes publikoa, eta, bestetik, ezingo zaio kalte ekonomikorik eragin onuradunari.

3. Dirulaguntzaren onuradunak, berak aurkeztutako justifikazioan, adierazten badu aldaketa batzuk egon direla dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetan, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar lezaketenak, eta aldaketa horiek guztiak onartzeko ez bada bete aurretik bete beharreko baimen administratiboko izapidea, orduan, dirulaguntza eman duen organoak onartu egin dezake aurkeztutako justifikazio hori, betiere onartze horrek ez badie kalterik eragiten hirugarrenen eskubideei; hala ere, horrek ez du salbuesten pertsona onuraduna 5/2005 Foru Arauaren arabera izan ditzakeen zehapenetatik.

86. oinarria. — *Emandako dirulaguntzen publizitatea*

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluan xedatutakoa beteko da. Horretarako, Dirulaguntzen Datu Base Nazonalean emandako dirulaguntzak argitaratuko dira artikulu horretan xedatutakoaren arabera. Halaber, dirulaguntza eman den urte naturala amaitu ondorengo lehen hiruhilekoa amaitu baino lehen, Ekonomia Sustatzeko Sailak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko ditu deialdi publiko honen ondorioetarako emandako dirulaguntzak, honako hauek adierazita: deialdia, aurrekontuko zer programari eta kredituri egozten zaizkion, onuradunaren izena edo sozietate-izena eta haren identifikazio fiskaleko zenbakia, emandako zenbatekoa, dirulaguntzaren helburua edo helburuak, eta diruz lagundutako programak edo proiektuak. Urte askotako dirulaguntzen kasuan, emandako zenbateko osoa eta urtekoen banaketa.

87. oinarria. — *Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea*

1. Onuradunek diruz lagundutako jarduketaren finantzaketa publikoaren publizitatea egin beharko dute. Horretarako, lagundutako jarduketaren zabalkunde publikorako egiten dituzten material, argitalpen eta ekitaldi guztietan, jasotako laguntza aipatu beharko dute eta Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa jarri beharko dute, erraz ikusteko leku batean.

2. Era berean, onuradunek adierazi beharko dute jarduketa diruz lagundua dela, sortutako euskarri fisikoetan, aplikagarria den araudiak debekatzen ez badu, euskaraz eta gaztelaniaz honako adierazpen hau jasoz: «Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu du proiektu hau». Beren beregi debekatuta dago beste edozein esaldi edo irudi erabiltzea Bizkaiko Foru Aldundiari erreferentzia egiteko.

88. oinarria. — *Jakinarazpen elektronikoa*

1. Erakunde interesdunei egindako jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.

2. Bitarteko elektronikoen bidezko jakinarazpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoa agertuz egingo dira (<https://www.ebizkaia.eus>) araudi bi hauetan ezarritakoaren arabera: Bizkaiko Foru Aldundiaren 62/2015 Foru Dekretua, maiatzaren 5ekoa, Administrazio Elektronikoa buruzkoa, eta Herri Administrazioarako eta Erakunde



Harremanetarako foru diputatuaren 4841/2016 Foru Agindua, ekainaren 6koa, jakinarazpenak eta komunikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa agertzeko sistemaren bidez egiteari buruzkoa.

3. Egindako jakinarazpen elektronikoak eskuragarri jartzeari buruzko abisuak eskabidean aurkeztutako helbide elektronikora bidaliko dira. Horretarako, eskaera bete ondoren, ofizioz eskumena duen organo edo unitateak alta emango dio helbide elektronikoa horri Bizkaiko Foru Aldundiaren prozeduren katalogoko dirulaguntzen prozedura honetarako aipatutako egoitza elektronikoa abisu-sisteman. Abisu horiek ez dute, inola ere, jakinarazpen-ondoriozko izango, eta horiek ez egoteak ez du eragotziko jakinarazpena guztiz baliozkotzat jotzea.

4. Jakinarazpenak egindakotzat joko dira edukira sartzerakoan, eta ezetsitzat jakinarazpena eskura jartzen denetik hamar egun natural igarotzen direnean edukira sartzetik gertatu ez denean.

VI. TITULUA

GAUZATZEA, JUSTIFIKATZEA ETA KONTROLA

89. oinarria. — *Gauzatze epea*

Diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean hasi eta amaituko dira, eta epea luzaezina da. Hala eta guztiz ere, inbertsio-proiektuak gauzatzea dakarten 4. eta 11. arloak (Turismo-ekosistema jasangarriko proiektuak bultzatzeko dirulaguntzak) eta 2. eta 9. arloetako 8. eta 36. oinarrietako diruz lagun daitezkeen egitateak, hurrenez hurren, 2024ko martxoaren 31ra arte gauzatzea onetsiko da, betiere, behintzat, 2023an hasi bada edo erakundea publikoa izanez gero, jarduera Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari lotutako kontratua kontratuaren mende egonda, lizitazio-prozedura hasi bada.

90. oinarria. — *Justifikazio epea*

1. Onuradunek organo instrukzio-egileari aurkeztu beharko diote ezarritako baldintzak betetzen direnaren azken justifikazioa eta dirulaguntzaren emakida ekimenean aurreikusitako helburuen betetzearena, 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko otsailaren 29ra bitarteko epean. Salbuespen izango dira martxoaren 31n amaitzen diren jarduketak, horiek justifikatzeko epea 2024ko maiatzaren 31ra artekoa izango baita, oinarri hauetan ezarritako moduan.

2. Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak azken justifikazioa aurkezteko ezarritako epea luzatu ahal izango du, gehienez ere haren erdia, betiere alegatutako inguruabarrek hala gomendatzen badute eta horrekin hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Eskaera eta luzapenari buruzko erabakia justifikazio-epea amaitu baino lehen egin beharko dira. Alegatutako arrazoia gertatu eta berehala eskatu beharko da, eta, nolanahi ere, justifikazio-epea amaitu baino gutxienez bi hilabete (2) lehenago Berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

3. Justifikazioa egiteko epea igaro eta dagokion instrukzio-organoaren aurrean ez bada aurkeztu justifikaziorik, organo horrek errekerimendua egingo dio erakunde onuradunari, hamabost (15) egun baliodunen epean aurkez dezan, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori ezingo da luzatu. Justifikazioa ez bada ezarritako epean aurkeztu, dirulaguntza itzultzea eskatuko zaio onuradunari eta, gainera, Dirulaguntzen Foru Arauaren 37. artikulua eta hurrengoetan ezartzen diren gainerako erantzukizunak eskatuko zaizkio.

91. oinarria. — *Azpikontretazioaren baldintzak*

1. Honako hau joko da azpikontretazioari: onuradunak hirugarren pertsona batekin hitzartzen duenean dirulaguntzaren xedeko jardura oso-osorik edo zati bat egitea. Azpikontretazioaren kontzeptu horretatik kanpo gelditzen da onuradunak diruz lagundutako jardura bere kabuz gauzatze egin behar dituen gastuen kontratazioa.



2. Onuradunak diruz lagundutako jarduera azpikontratatu ahal izango du, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren ehuneko 100 arte. Azpikontratazio-ehuneko hori egindako azpikontratu guztien baturaren arabera kalkulatzen da.
3. Inola ere ezingo dira azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handitu arren jarduera horri balio erantsirik ez dakarkioten jarduerak.
4. Onuradunak ezin izango du inola ere hitzartu diruz lagundutako jarduerak osorik edo partez egitea 5/2005 Foru Arauaren 27.7 artikuluan zehaztutako pertsona edo erakundeekin.
5. Diru-laguntzaren xedea gauzatzea agintzen zaien erakundeek genero-berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako printzipio orokorrak eta betebeharrak errespetatu beharko dituzte.
6. Dena dela, azpikontratazioaren zenbatekoa handiagoa bada 9/2017 Legean kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak baino, onuradunak, gutxienez, hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.
7. Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan jaso beharko dira edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran, eta haien artean aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan, eta, proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzeko ez denean, aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da espresuki.
8. Beste batzuekin hitzarturiko jarduera hori dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20tik gorakoa bada, eta zenbateko hori 60.000,00 euro baino handiagoa bada, azpikontratazioak honako baldintza hauek bete beharko ditu:
 - a) Kontratua idatziz egin beharko da.
 - b) Kontratua egin aurretik dirulaguntza eman duen erakundeak baimena eman beharko du, oinarri arautzaile hauekin ezarri den bezala.
9. Eskabideak proposatutako azpikontratazioaren baldintza nagusiak adierazi beharko ditu, eta Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak ebatziko du, bulego birtualean aurkeztu denetik hamabost (15) egun balioduneko epean. Epe hori amaitzean ebazpen espresua jakinarazten ez bada, administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertuko da.

92. oinarria. — Dirulaguntzak justifikatzea

1. Justifikazio-kontu baten bitartez frogatuko du onuradunak betetzen dituela ezarritako baldintzak eta lortu direla dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako helburuak.
2. Dirulaguntzaren justifikazioa Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez izapidetu behar da.
3. Justifikazio-kontuak honako dokumentazio orokor hau jaso behar du:
 - a) Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduera-txostena, non egindako ekintzak eta lorturiko emaitzak adierazten diren.
 - b) Egindako jardueren kostua frogatzen duen txosten ekonomikoa, Ekonomia Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualeko ereduaren arabera, honako hauek jasotzen dituen:
 - 1) Diruz lagundutako proiektuari edo jarduerari egotzitako sarrera-gastuen egoera-orria. Justifikazio-gastuak bulego birtualaren bidez bidaltzean, sistemak automatikoki sortuko du diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren gastuen zerrenda.
 - 2) Aurreko 1) apartatuan aipatzen den gastuen egoera-orria osatzen duen partida bakoitzeko, diruz lagundutako jardueraren gastuak eta/edo inbertsioak biltzen dituen zerrenda sailkatua. Zerrendan bertan, hartzekoduna eta agiria identifikatu behar dira, bai eta hari dagokion zenbatekoa, emate-data eta, hala badagokio, zenbateko hori zein egunetan ordaindu zen ere. Dirulagun-



tza hori aurrekontu baten arabera eman bada, aurrekontuan izandako desbideratzeak zehaztu behar dira.

Erakundeak BEZari dagokionez duen egoeraren arabera, honako hau egingo da:

- a. Gastuek Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) barne hartuko dute, baldin eta diruz lagundutako jarduerara soilik bideratutako ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeari edo inportatzeari badagokio, eta jarduera hori EZ bada eragiketa lotu eta salbuetsi gabea; beraz, BEZa kostu erreal eta efektiboa da erakundearentzat.
- b. Gastuetan ez da BEZa sartuko, guztiz berreskuratu edo konpentsatu badaiteke.
- c. Gastuetan BEZaren zati bat sartuko da erakundearen jarduera hainbatatze-arauari lotuta dagoenean. Kasu horretan, erakundeak berreskuratu edo konpentsatu ezin duen BEZaren zatia sartuko da.

Erakunde onuradunak ekitaldiko hainbanaketaren behin betiko ehuneko egiaztatu beharko du, baldin eta eskaera egin zuen unean sinatu zuen balio erantsiaren gaineko zergari buruzko egoera-aitorpenean adierazitakoaren berdina ez bada.

- 3) Aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan jasotzen diren fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan frogabario bera duten edo eraginkortasun administratiboa duten agiriak eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzeko agiriak. Dirulaguntza hori aurrekontu baten arabera eman bada, aurrekontuan izandako desbideratzeak zehaztu behar dira. Ekonomia Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualean aurkezteko moduko formatuetan egongo dira.
- 4) Pertsona bakoitzeko behar bezala akreditatutako eta dagokion erregistro ofizialean inskribatutako tasazio independente baten ziurtagiria, ondasun higiezinak eskuratzen badira.
- 5) Hala badagokio, adieraziko da zer irizpide erabili diren aurreko 3.b).2) apartatuan adierazten diren kostu orokorrak eta/edo zeharkako kostuak banatzeko.
- 6) Aurreko 3.b).1) apartatuan aipatzen den sarreraren egoera-orria osatzen duten partida bakoitzeko, Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuen zerrenda xehakaturik, baita eskatzen den finantzaketa propioarena ere, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- 7) 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikulua betetzeko, onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak, hala badagokio.
- 8) Aplikatu ez den geldikirik egonez gero, haien eta beraien korrituen itzulketa-oren ordain-gutuna.
4. Dekretu honetan, gainera, hauek aurkeztu beharko dira:
 - a) Garatutako ekintzei buruzko emaitzen panela, Ekonomia Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualeko ereduarekin bat etorritik. Bertan, alderdi hauei buruzko datuak emango dira, besteak beste:
 - 1) 1. arloa: diruz lagundutako langileek parte hartu duten BBAG eta BFaren lan-saioak eta garatutako proiektuak.
 - 2) 2. eta 9. arloak: baliabidearen bisitari-kopurua, jatorria eta batez besteko gogobetetzea, datuak sexuaren arabera bereizita eta mugikortasun urriko pertsonak zehaztuta.
 - 3) 3. eta 10. arloak: produktua kudeatzen duten eragileak eta sustapen- eta merkaturatze-ekintzak.
 - 4) 4. eta 11. arloak: erabiltzaileak, jatorria eta batez besteko gogobetetzea.
 - 5) 5. eta 12. arloak: parte-hartzaileen kopurua eta batez besteko gogobetetzea, datuak sexuaren arabera bereizita.



- 6) 6. eta 13. arloak: proiektuko partaideen kopurua eta, hala badagokio, zenbat enplegu sortu den.
 - 7) 7. arloa: erabiltzaile kopurua, jatorria eta batez besteko gogobetetzea, datuak sexuaren arabera bereizita.
 - 8) 8. eta 14. arloak: turismoa sustatzeko ekintzan parte hartzen duten enpresen eta partaidetzako eragileen kopurua; inpaktu digitala.
 - b) Zuzeneko langileak kontratatzeako gastuen kasuan, nominak eta langileen zerrenda nominalak, eskabidea aurkeztu ondorengo hilabetei dagozkienak eta 2023ko ekitaldia amaitu artekoak.
 - c) Laguntzaren xedea azterlanak egitea bada, egindako azterlana aurkeztu behar da.
 - d) Proiektuen balorazioa zenbatespenetan oinarritu bada, diruz lagundutako jardueran lortutako datu errealei buruzko informazioa eman behar da.
 - e) Justifikazioko jarduketa-memorian adierazitakoa betetzen dela egiaztatzen duten txostenak, adierazpenak eta dokumentuak.
5. Ezarritako gainerako eskakizunak betetzeari buruzko justifikazio-memoria (dirulaguntza zabaltzea, gardentasunaren araudia, ofizialak diren hizkuntzak erabiltzea, berdintasun-generoa, beste gizarte-politika batzuk), Ekonomia Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualeko ereduaren arabera. Horiek betetzen direla egiaztatzeako txostenak, aitortpenak eta dokumentuak erantsiko dira.

93. oinarria. — Dirulaguntza ordaintzea

1. Dirulaguntzak eman eta onartu ondoren ordainduko dira, ordainketa aurreratu bakar baten bidez, emandako dirulaguntzaren zenbateko osoarekin eta inolako bermerik eskatu gabe, dirulaguntzari datxezkion jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa.
2. Dirulaguntza ordaindu aurretik, egiaztatuko da onuradunek egunean dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta ez direla zordunak dirulaguntza itzultzeagatik. Edozelan ere, egiaztatuko da onuradunak ez daudela honako kasu hauetan: konkurtso-deklarazioa eskatu bada; edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratuak izan badira; konkurtsoan deklaratu badaude; esku-hartze judizialen menpe baldin badaude; edo Lege Konkurtsalaren arabera desgaituak izan badira eta konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaituntza-epea artean amaitu barik badago.
3. Egindako egiaztapenen ondorioz, onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez baditu edo itzulketa-prozeduraren bat ebatzia badu, edo aurrez deskribatutako egoeraren bat gertatzen bada, ezingo da dirulaguntzaren ordainketa egin.
4. Emandako dirulaguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, dirulaguntzaren eskabidean adierazitako kontu korrontera.

94. oinarria. — Estatuko laguntzak metatzea

1. Foru-dekretu honetako IX. kapitulutik XIV.era bitartean (9. arlotik 14.era) jasotako dirulaguntzek honako erregelamendu honetan xedaturikoa bete behar dute: Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamendua, 2013ko abenduaren 18koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa.
2. Ematen diren dirulaguntzak de minimis laguntzat hartuko dira. Emandakotzat joko dira onuradunari dirulaguntza jasotzeko eskubide legala aitortzen zaion unean.
3. Pertsona onuradun batek jaso dezakeen de minimis laguntzen zenbateko osoa ezin da izan 200.000,00 euro baino gehiago (salbu eta garraioaren sektorean, non ezin baita izan 100.000 euro baino gehiago), zenbatzen direlarik indarreko ekitaldi ekonomikoa eta aurreko biak.



4. Ez bada betetzen Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamendua, 2013ko abenduaren 18koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa, horrek berekin ekar liezazkioke arau-hausleari erantzukizun penala, zibila eta administratiboa.

5. Foru-dekretu honen arabera emandako laguntzak beste de minimis laguntza batzuekin metatu ahal izango dira, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Erregelamenduan (EB) ezarritako gehieneko mugaraino. Laguntza horiek ez dira Estatuko ezein laguntzarekin metatuko, diruz lagun daitezkeen gastu berei dagokienez, baldin eta metatze horrek gainditu egiten baditu Batzordeak onarturiko kategorien arabera salbuespen-erregelamendu batek edo erabaki batek kasuan kasurako finkaturiko inguruabar zehatzetarako laguntza-intentsitatea edo gehieneko laguntzaren zenbatekoa.

95. oinarria. — Laguntzen bateragarritasuna

1. Foru-dekretu honen babesean emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituzten dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, baldin eta gastu hautagarri beretarako gehieneko laguntza-intentsitatea errespetatzen bada.

2. Hala ere, ez dira bateragarriak izango Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaiko foru-sektore publikoko bestelako erakundeek edo aurrekoen %50eko partaidetza edo horatik gorakoa duten erakundeek helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

3. Dirulaguntzen zenbatekoak, bera bakarrik edo beste dirulaguntza nahiz laguntzekin batera, ezin izango du, inola ere, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua gainditu.

4. Aurreko muga horietakoren bat gaindituz gero, emandako edo eman beharreko dirulaguntzari soberakinari dagokion kopurua kenduko zaio.

5. Onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu dituztela jakinarazi beharko diote Ekonomia Sustatzeko Sailari, horren berri izan bezain laster eta, nolana ere, funtsei emandako erabilera justifikatu baino lehen, eta, hala badagokio, egindako itzulketa-gutunaren kopia erantsita. Hori guztia 5/2005 Foru Arauaren 18.3 eta 4. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izateko eta, hala badagokio, itzulketa-prozedura hasteko.

96. oinarria. — Pertsona onuradunen beste betebeharrak batzuk

Honako betebeharrak hauek izango dituzte laguntzen onuradunek:

- a) Dirulaguntza emateko arrazoi den helburu, proiektu, jarduera edo jokaera lortu, burutu, egin edo hartzea.
- b) Ekonomia Sustatzeko foru diputatuaren aurrean edo erakundearen aurrean justifikatzea betekizun eta baldintzak betetzen direla, hala badagokio, baita jarduera egin dela eta dirulaguntza emateko edo laguntzaz gozatu ahal izateko aintzat hartutako xedea bete dela ere.
- c) Oinarri hauetan jasotako hedapen-neurriak hartzea, hau da, «Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea» izeneko oinarrian adierazitakoa betetzea.
- d) Aurrekontu ekitaldi batean Bizkaiko Foru Aldunditik gutxienez 100.000 eurokoak diren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeak edo urteko diru-sarreraren %40 foru laguntzak edo dirulaguntza publikoak direnean, baldin eta gutxienez 5.000 eurokoak badira, bete egin beharko dituzte Bizkaiko gardentasunaren otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauko publizitate aktiboaren betebeharrak. Hau da:
 - 1) Aurretik aipatutako mugak gainditu eta hurrengo urtetik aurrera webgunean informazio publiko garrantzitsua argitaratzea modu irisgarrian, doan, egiaz,



eguneratuta eta berrerabiltzeko moduan. Datu pertsonalak babestearen arloko legeria errespetatuko da eta euskaldunen hizkuntz eskubideak bermatuko dira. Horretarako, informazioa euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko da.

- 2) Informazioa eguneratuta mantentzea gutxienez lau urte naturaletan.

Hauxe da gutxienez onuradunaren informazio publiko garrantzitsua:

- 1) Erakunde informazioa, antolamendukoa eta plangintzakoa: araudia, funtzioak, antolamendu egitura, organigrama, arduradunen identifikazioa, profila eta ibilbide profesionala.
 - 2) Ekonomikoa, aurrekontukoa eta estatistikoa: administrazio publikoek adjudikatutako kontratuak, kontratu txikiak, administrazio publikoekin sinatutako hitzarmenak, jasotako dirulaguntzak eta laguntza publikoak, aurrekontuak, urteko kontuak, kontu ikuskaritzen txostenak eta arduradun nagusien urteko ordainsariak.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza koofizialak erabiltzea hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 13.3 eta 13.4 artikuluetan ezarritakoarekin bat. Hau da:
- 1) Diruz lagundutako jarduera publiko guztietan bi hizkuntza koofizialak erabiltzea.
 - 2) Diruz lagundutako jarduerarekin lotutako materialetan, argitalpenetan eta bestelako euskarrietan bi hizkuntza koofizialak erabiltzea.
- f) Genero ikuspegia sartzea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Horrek hauxe esan nahi du:
- 1) Egiaztatzea jarduketetan bete egiten direla 4/2005 Legearen 3. artikuluan adierazitako printzipio orokorrak, egindako azterketa eta estatistiketan lege horren 16. artikuluan xedatutakoa betetzen dela eta zuzenean edo hirugarrenen bidez sortutako hizkuntza, irudi, euskarri eta dokumentuetan hizkuntza sexista erabiltzen ez dela egiaztatzea.
 - 2) Egiaztatzea Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizio, sarbide, kontratazio eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonal, lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzearen arloan, lanaren kalitate eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikal, ordezkaritza eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak sustatzen direla eta gardentasun eta ordainsari berdintasun printzipioa betetzen dela.
 - 3) Egiaztatzea zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.
 - 4) Egiaztatu behar da Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat datorren berdintasun plan bat dutela, eta benetan aplikatzen dutela.
 - 5) Egiaztatzea bermatzen dela neurriak hartuko dituela lan-arloan emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, hari aurre egiteko, haren jarraipena egiteko, hura ebaluatzeko eta desagerrarazteko, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko.
- g) Kontabilitate liburuak, erregistroak eta gainerako agiriak egunean edukitzea —egin beharreko eginbide eta auditoriak eginda, alegia—, pertsona onuradunari



kasu bakoitzean aplikatu beharreko merkataritza-legerian eta legeria sektorialean ezarritakoaren arabera, eta Oharra.- Zerbitzu bakoitzak osatzeko) kontabilitate orri eta erregistro espezifiko guztiak edukitzea, egiaztapen eta kontrol ahalmenen erabilera egokia bermatzeko.

- h) Jasotako funtsen erabilera frogatzen duten agiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol ekintzetarako erabilgarriak izan daitezkeen neurrian.
- i) Foru arau honen 33. artikuluan jasotako egoeretan jasotako funtsak itzultzea.
- j) Baldin eta dirulaguntza emateko orduan kontuan hartu diren inguruabar objektibo edo subjektiboetatik edozein aldatu bada, aldaketa horren berri ematea dirulaguntza eman dionari.
- k) Foru Administrazioako organoek edo erakunde eskatzen dieten laguntza eta dokumentazioa ematea, bai eta, Europar Batasuneko araudiaren arabera, finantza-kontrolako eginkizunak esleituta dituzten organoek ere. Horretarako, honako ahalmen hauek izango dituzte:
 - 1) Egiaztatu beharreko agirietara, euskarri informatikoan dauden programa eta artxiboak barne, iristeko askatasuna.
 - 2) Sarrera librea diruz lagundutako jarduera garatzen den edo dirulaguntzaren kargura finantzatutako eragiketen errealitatea eta erregularatasuna egiaztatzeak aukera ematen duten negozio-lokaletara eta gainerako establezimendu edo lekuetara.
 - 3) Fakturak, agiri baliokideak edo ordezkioak eta eragiketei buruzko beste edozein agiri atxikitzea edo kopia eskuratzea, baldin eta horietan dirulaguntza behar ez bezala lortu, baliatu edo erabili izanaren zantzuak ondorioztatzen badira.
 - 4) Dirulaguntzak kobratu diren edo funtsak erabili diren finantza-erakundeetako banku-kontuetako informazioa eskuratzeko askatasuna.

Laguntza emateko eta dokumentazioa emateko betebeharrak hori betetzeari uko egitea erresistentziatzat, desenkusatzat, oztopotzat edo negatibotzat joko da, 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, hala bada-gokio, zehapenen kalterik gabe.

- l) Emakumeen eta gizonen arteko genero berdintasunarekin lotutako betebeharrak betetzen direla egiaztatzeak jarduketak egitea eta justifikazio dokumentazioa ematea. Laguntzen ez bada eta dokumentazioa ematen ez bada, urratu egingo dira 5/2005 Foru Arauaren 33.1.f) artikuluan adierazitakoaren ondorioetarako ezarritako betebeharrak.
- m) Deslokalizazioan ez erortzea. Enpresa deslokalizaziotzat jotzen da Enpresak deslokalizatzen direnean foru-sektore publikoak laguntzak berreskuratzeari buruzko martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauak ezarritakoa, eta foru-dekretu honek arautzen dituen dirulaguntzei aplikatuko zaie foru-arau hori.



I. ERANSKINA BIZKAIKO TURISMO-BALIABIDE KATALOGATUAKI

P	C	Errekurtsoa	Herria	Lurralde egitura	Helmuga turistikoa	Tipologia
0	A	Guggenheim Bilbao	Bilbo	BILBO	Bilbo eta metropolialdea	Museoa
0	A	Bizkaia Zubia	Getxo/Portugalete	GETXO/PORTUGALETE	Bilbo eta metropolialdea	Erakargarri kulturala
0	A	Gaztelugatxeko San Juan	Bermeo	URDAIBAI	Bizkaiko kostaldea	Natur Parkea – Naturagune babestua
0	A	Urdaibai Biosfera Erreserba	Hondartzak/Birding IBiodibertsitate Zentroa	URDAIBAI	Bizkaiko kostaldea	Natur Parkea – Naturagune babestua
0	B	Santa Katalinako itsasargia	Lekeitio	LEA-ARTIBAI	Bizkaiko kostaldea	Erakargarri kulturala
0	B	Pozalagua haitzuloa	Karrantza	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Bizkaiko mendiak	Erakargarri kulturala
0	B	Flyshen ibilbidea	Getxo-Sopela-Barrika	GETXO/URIBE	Bizkaiko kostaldea	Ibilbide naturala
0	C	Gorbeiko parke nazionala	Interpretazio Zentroa Saldropo Itzina (Urigoit)	GORBEIALDEA	Bizkaiko mendiak	Natur Parkea – Naturagune babestua
0	C	Urkiolako parke nazionala	Interpretazio Zentroa Abarte Aramotz	DURANGALDEA	Bizkaiko mendiak	Natur Parkea – Naturagune babestua
0	C	Salvada mendilerroa Nerbioiko ur-jauzia	Urduña/Orduña	URDUÑA/ORDUÑA	Bizkaiko mendiak	Erakargarri kulturala
1	A	Santurtziko arrantza-portua	Santurtzi	SANTURTZI	Bilbo eta metropolialdea	Marinel/Arrantza gunea
1	A	Omako basoa	Kortezubi	URDAIBAI	Bizkaiko kostaldea	Erakargarri kulturala
1	A	Gernikako Batzar Etxea eta Arbola	Gernika	URDAIBAI	Bizkaiko kostaldea	Erakargarri kulturala
1	A	Ziortako kolegiata	Ziortza-Bolibar	LEA-ARTIBAI	Bizkaiko kostaldea	Erakargarri kulturala
1	A	Karpin Abentura	Karrantza	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Bizkaiko mendiak	Erakargarri kulturala
1	B	Algortako portu zaharra	Getxo	GETXO	Bilbo eta metropolialdea	Marinel/Arrantza gunea
1	B	Portugaleteko hirigune historikoa	Portugalete	PORTUGALETE	Bilbo eta metropolialdea	Historia- eta kultura-gunea
1	B	Butroeko gaztelua	Gatika	URIBE	Bizkaiko kostaldea	Erakargarri kulturala
1	B	Uribe-Kostako hondartzak	Sopela-Plentzia-Gorliz	URIBE	Bizkaiko kostaldea	Hondartzak
1	B	Balmasedako hirigune historikoa	Balmaseda	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Bizkaiko mendiak	Historia- eta kultura-gunea
1	B	Durango hirigune historikoa	Durango	DURANGALDEA	Bizkaiko mendiak	Historia- eta kultura-gunea
1	C	Lea ibilbidea	Munitibar-Mendexa-Lekeitio	LEA-ARTIBAI	Bizkaiko kostaldea	Erakargarri kulturala
1	C	Armañongo parke nazionala	Interpretazio Zentroa El Suceso Turtzioz	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Bizkaiko mendiak	Natur Parkea – Naturagune babestua
1	C	Areatzako hirigune historikoa	Areatza	GORBEIALDEA	Bizkaiko mendiak	Historia- eta kultura-gunea
1	C	Otxandioko hirigune historikoa	Otxandio	GORBEIALDEA	Bizkaiko mendiak	Historia- eta kultura-gunea
1	C	Elorrioko hirigune historikoa	Elorrio	DURANGALDEA	Bizkaiko mendiak	Historia- eta kultura-gunea
1	C	Urdunako hirigune historikoa	Urduña/Orduña	URDUÑA/ORDUÑA	Bizkaiko mendiak	Historia- eta kultura-gunea
2	A	Kirol portua	Getxo	GETXO	Bilbo eta metropolialdea	Aisialdirako eta jolaserako gunea
2	A	Plentziako hirigune historikoa	Plentzia	URIBE	Bizkaiko kostaldea	Marinel/Arrantza gunea
2	A	Urdaibai Bird Center	Gautegiz-Arteaga	URDAIBAI	Bizkaiko kostaldea	Erakargarri kulturala
2	A	Mundaka eta bere olatua	Mundaka	URDAIBAI	Bizkaiko kostaldea	Marinel/Arrantza gunea
2	A	Bermeoko alde zaharra eta portua	Bermeo	URDAIBAI	Bizkaiko kostaldea	Marinel/Arrantza gunea
2	A	Lekeitioko hirigune historikoa	Lekeitio	LEA-ARTIBAI	Bizkaiko kostaldea	Marinel/Arrantza gunea
2	A	Loizaga dorrea	Sopuerta	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Bizkaiko mendiak	Museoa
2	B	Getxoko hondartzak	Getxo	GETXO	Bilbo eta metropolialdea	Hondartzak
2	B	Gorlizko itsasargia	Gorliz	URIBE	Bizkaiko kostaldea	Erakargarri kulturala
2	B	Bakioko hondartza	Bakio	URIBE	Bizkaiko kostaldea	Hondartzak
2	B	Ondarroako hirigune historikoa	Ondarroa	LEA-ARTIBAI	Bizkaiko kostaldea	Marinel/Arrantza gunea
2	B	Markinako hirigune historikoa	Markina	LEA-ARTIBAI	Bizkaiko kostaldea	Historia- eta kultura-gunea
2	B	Arenako hondartza	Muskiz	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Bizkaiko mendiak	Hondartzak
2	B	Baltzolakako haitzuloak	Dima	GORBEIALDEA	Bizkaiko mendiak	Erakargarri kulturala
2	B	Argiñetako nekropolia	Elorrio	DURANGALDEA	Bizkaiko mendiak	Erakargarri kulturala
2	C	Larrabetzuko hirigune historikoa	Larrabetzu	URIBE	Bizkaiko kostaldea	Historia- eta kultura-gunea



P	C	Errekurtsoa	Herria	Lurralde egitura	Helmuga turistikoa	Tipologia
2	C	Armintzako arrantza-portua	Lemoiz	URIBE	Bizkaiko kostaldea	Marinel/Arrantza gunea
2	C	Zugazietako multzo naturala	Trapagaran	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Bizkaiko mendiak	Natur Parkea – Naturagune babestua
2	C	Burdinazko mendien bide berdea - Itsaslur	Artzetales - Muskiz	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Bizkaiko mendiak	Erakargarri kulturala
2	C	Orozko etnografia museoa	Orozko	GORBEIALDEA	Bizkaiko mendiak	Museoa
2	C	Arrazola bide berdea	Atxondo	DURANGALDEA	Bizkaiko mendiak	Erakargarri kulturala
3	A	Txakolingunea - Museo del txakoli	Bakio	URIBE	Bizkaiko kostaldea	Museoa
3	A	Euskadiko Biodibertsitate Zentroa (Torre Madariaga)	Busturia	URDAIBAI	Bizkaiko kostaldea	Erakargarri kulturala
3	A	Bakearen Museoa de la Paz	Gernika	URDAIBAI	Bizkaiko kostaldea	Museoa
3	A	Santimamiñeko haizuloa	Kortezubi	URDAIBAI	Bizkaiko kostaldea	Erakargarri kulturala
3	A	La Encartada txapelak	Balmaseda	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Bizkaiko mendiak	Museoa
3	B	Punta Begoñako galeriak	Getxo	GETXO	Bilbo eta metropolialdea	Historia- eta kultura-gunea
3	B	Landetxo Goikoa	Mungia	URIBE	Bizkaiko kostaldea	Erakargarri kulturala
3	B	Laida/Laga hondartzak	Ibarrengelu	URDAIBAI	Bizkaiko kostaldea	Hondartzak
3	B	Matxitxakoko itsasargia	Bermeo	URDAIBAI	Bizkaiko kostaldea	Erakargarri kulturala
3	B	Elantxobeko arrantza-portua	Elantxobe	URDAIBAI	Bizkaiko kostaldea	Marinel/Arrantza gunea
3	B	El Pobal burdinola	Muskiz	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Bizkaiko mendiak	Museoa
3	B	Avellanedako batzar-etxea	Sopuerta	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Bizkaiko mendiak	Museoa
3	B	Ermilabarriko multzo historikoa	Zeberio	GORBEIALDEA	Bizkaiko mendiak	Historia- eta kultura-gunea
3	B	Durangaldeko begiratokia - Momoiko nekropolia	Garai	DURANGALDEA	Bizkaiko mendiak	Erakargarri kulturala
3	C	Zierbenako portua Puerto de Zierbena	Zierbena	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Bizkaiko mendiak	Marinel/Arrantza gunea
3	C	Lanestosako hirigune historikoa	Lanestosa	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Bizkaiko mendiak	Historia- eta kultura-gunea
3	C	Eleizondoko monumentu-multzoa	Zeanuri	GORBEIALDEA	Bizkaiko mendiak	Historia- eta kultura-gunea
3	C	Ugaoko hirigune historikoa	Ugao-Miraballes	GORBEIALDEA	Bizkaiko mendiak	Historia- eta kultura-gunea
4	A	Euskal Herria Museoa Euskal Herria	Gernika	URDAIBAI	Bizkaiko kostaldea	Museoa
4	A	Arrantzalearen Museoa del Pescador	Bermeo	URDAIBAI	Bizkaiko kostaldea	Museoa
4	A	Meatzaritzaren Museoa de la Minería	Abanto-Zierbena	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Bizkaiko mendiak	Museoa
4	B	Andra Mari Galdakao	Galdakao	S/E	Bilbo eta metropolialdea	Historia- eta kultura-gunea
4	B	Muñatones gaztelua	Muskiz	ENKARTERRI-MEATZALDEA	Bizkaiko mendiak	Erakargarri kulturala
4	B	Muntsarantz Dorretxea	Abadiño	DURANGALDEA	Bizkaiko mendiak	Erakargarri kulturala
4	B	Durango arte eta historia Museoa	Durango	DURANGALDEA	Bizkaiko mendiak	Museoa
4	C	Rialia Museoa Rialia	Portugalete	PORTUGALETE	Bilbo eta metropolialdea	Museoa
4	C	Itsasoko Museoa del Mar	Santurtzi	SANTURTZI	Bilbo eta metropolialdea	Museoa
4	C	Mendibile Jauregia	Leioa	S/E	Bilbo eta metropolialdea	Erakargarri kulturala
4	C	Ekomuseoa	Artea	GORBEIALDEA	Bizkaiko mendiak	Museoa
4	D	Arte Ederren Museoa de Bellas Artes	Bilbo	BILBO	Bilbo eta metropolialdea	Museoa
4	D	Alde zaharra Casco Viejo	Bilbo	BILBO	Bilbo eta metropolialdea	Historia- eta kultura-gunea
4	D	Athletic Museoa Athletic	Bilbo	BILBO	Bilbo eta metropolialdea	Museoa
4	D	Azkuna Zentroa	Bilbo	BILBO	Bilbo eta metropolialdea	Erakargarri kulturala
4	D	Bilboko Itsasadarra itsas Museoa	Bilbo	BILBO	Bilbo eta metropolialdea	Museoa
4	D	Euskadiko museo arkeologiko, etnolagiko eta historikoak	Bilbo Bilbao	BILBO	Bilbo eta metropolialdea	Museoa
4	D	Euskalduna jauregia	Bilbo	BILBO	Bilbo eta metropolialdea	Erakargarri kulturala
4	D	Artxandako funikularra	Bilbo	BILBO	Bilbo eta metropolialdea	Aisialdirako erakargarri



II. ERANSKINA

2030 TURISMO ESTRATEGIAREN MARKETIN-ARDATZA*Sustapen turistikoa merkatuetan*

Sustapen turistikoa merkatuetan	Kudeaketa turistikoko enteak	Elkarte sektorialak	Turismo-enpresak
B2B (ekintzak)	X	Bilbao Bizkaia egutegia FAM trips Trade ekitaldi propioak Gainerakoen trade ekitaldiak	Bilbao Bizkaia egutegia FAM trips Trade ekitaldi propioak Gainerakoen trade ekitaldiak
(merkatuak)	X	Lehentasunezkoak Aukerakoak Taktikoak Segmentuak eta interes berez.	Lehentasunezkoak Aukerakoak Taktikoak Segmentuak eta interes berez.
B2C (ekintzak)	Kanpainak Ekitaldi propioak Gainerakoen ekitaldiak	Kanpainak Ekitaldi propioak Gainerakoen ekitaldiak	X
(merkatuak)	Euskadi Estatua Frantzia hego-mendebaldea Segmentuak eta interes berez.	Lehentasunezkoak Aukerakoak Segmentuak eta interes berez.	X
PR (ekintzak)	Ekintzak hedabideekin Ekintzak influencerrekin	Ekintzak hedabideekin Ekintzak influencerrekin	X
(merkatuak)	Euskadi Estatua Frantzia hego-mendebaldea Segmentuak eta interes berez.	Lehentasunezkoak Aukerakoak Segmentuak eta interes berez.	X



III. ERANSKINA

TURISMO JASANGARRIAREN ADIERAZLEAK BILBAO BIZKAIA*4. eta 11. arloak. Ekosistema jasangarri baterako proiektuak sustatzea*

Adierazleen taula	Eragin ekonomikoa	30 Puntuak gehienez	Ingurumen-inpaktua	30 Puntuak gehienez	Eragin soziala:	30 Puntuak gehienez
Aurreko denbora-ardatzarekiko konparazioan adierazleen gehikuntza edo murrizketa. (Adibidez: x udalerriko energia-kontsumoa murriztea, 2021eko abuztua 2022ko abuztuarekin alderatuta).	Turismo-sektoreko enpresen kopurua areagotzea	12	Hondakin gutxiago sortzea	12	Langabezia-tasa hobetzea	12
	Turismo-sektoreko langileen kopurua handitzea	12	Uraren kalitatea hobetzea (itsasoa, ibaia edo lakuak/urtegiak)	9	Gizartearen segurtasun-indizea hobetzea	6
	RevPar areagotzea (Revenue Par)	6	Energia-kontsumoa murriztea	12	Laneko genero-desberdintasunak murrizten ditu.	9
	Sarrera turistikoaren kopurua handitzea	9	Berotegi-efektuko gasen isurketak murriztea	12	Ezberdintasun sozialak murrizten laguntzen du	12
	Turisten helmugako gastua handitzea	9	Bizkaiko natur gune babestuen ingurumen-eremuaren babesa (2. oinarria)	9	Gizarteak turismoari buruz duen gogobetetzeak gora egin du	12
	Turismoak BPGri egindako ekarpena areagotzea	6	Itsas mailaren igoerak eragindako uholdeak minimizatzen ditu	6	Gizartean euskararen erabilera sustatzen du	6
	Lurraldearen oreka ekonomikoaren sustapena	10	Kutsadura akustikoa gutxitzea	10	Bizkaiko Lurralde Historikoko eskualdeen kultura-ondarea, euskal kultura eta nortasuna sustatzen ditu	10